


Kalitatea, errentagarritasuna,
sektorearen parte-hartzea
Labela bai, baina nolakoa?

- **Maitane Falagan**, gorren interpretea: «EAEn atzean geratu gara gorren hizkuntz eskubideetan»
- **Albert Branchadell i Gallo**: «Hizkuntzen bizitza zailtzen duena ez da zatiketa politikoa, zatiketa mentala baizik»
- **Net Hurbil**: Kriaren aurrean, bankuak nazionalizatu
- **Lotsati**: Poeta diferente baten historia tragikoa
- **Larrun** gehigarrian: Slavoj Zizek, pentsalari ezkertiar ikonoklasta



TXITXARDIN BELTXA

Oria Etorbidea, 12

☎ 37 03 04

- 4 **Deabruaren abokatua: Dario Urzay.**
Sustrai Colina.

Gaiak

- 16 **Maitane Falagan, gorren interpretea:**
"Zeinu hizkuntzaren ofizialtasuna onartu gabe dago oraindik". Miren Ibarluzea.

Iritziak

- 18 **Ttakun (h)errenka. Kanpotik.** José Luis Padrón.
19 **Gora Pro Nobis.** Asisko Urmeneta.
20 **Estandarra bortxatuz.** Joxemari Carrere Zabala.
L'enfant... Amatiño.
21 **Auzatik Behartzunera, ezer berririk ez.**
Joxerra Aizpurua.
Visca Catalunya. Joxemari Ostolaza.
22 **Bertso berriak. Arabari jarriak.** Martin Ttipia taldea.

Erdiko kaiera

- 26 **Eguzki Bideoak: "Erantzun bat eragin nahi dugu, historia desberdinak kontatuz".** Lander Arbelaitz.
28 **Liburuak.** Igor Estankona.
29 **Diskoak.** Iker Barandiaran.
30 **Ezpalak.** Urko Apaolaza/Jon Torner.
31 **Abarrak.** Jon Torner.
32 **Ihesi: Ituren. Eraikin galduen bila Malerreka gainetik.**
A. Agirresarobe/M. Tellabide.
36 **Denbora-pasak.** Ana Zambrano eta Kike Amonarriz.
38 **Zientzia eta teknologia.**
Joxerra Aizpurua.
39 **Landareak.** Jakoba Errekondo.
40 **Denboraren makina.** Nagore Irazustabarrena.



Ituren.

Termometroa

- 46 **Bero-beroan.** Juan Mari Arregi, Onintza Irureta eta Xabier Letona.
48 **Net Hurbil. Haien atzaparretan gaudenez, bankuak nazionalizatu.** Pello Zubiria.

Azkena

- 50 **Itzuli edo ez itzuli.** Anuntxi Arana.

5 | Labela elikagaietan | Mikel Garcia

Supermerkatuko izendapen, deitua eta marka saltsan, labelaren aldeko apustua da eraginkorrena, kalitate oneko gure produktuen eta ekoizleen alde. Baina gaur egungo labelak zein kalitate irizpide ditu? Zein eredu bultzatzen du? Errentagarri al zaie baserritarrei?



10 | Inazio Olarreaga, Nevadako euskalduna | Miel A. Elustondo

23 | Gurutz Sarasola Lotsati, poeta ahaztua | Lander Muñagorri

41 | Albert Branchadell | Aritz Galarraga

Filologo katalana da Branchadell, eta Universitat Autònoma de Barcelonako irakaslea. Kataluniako hizkuntza politikarekin polemikoa da; besteak beste, aditzera eman du Katalunia estatu independentea balitz katalanarentzat gauzak orain baino okerrago izan litezkeela.



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estibx Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produkzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loarte. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxes: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaia Taldeko partaidea da.

Azala: Antza. Azaleko argazkia: Eusko Label.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



“Oso hibridoa izan naiz beti”

Dario Urzay

Dario Urzay entzunda Athletic-en kamiseta famatu hura bururatu zaizula...
Diozun bezain kulturzalea al zara?

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Iñigo Azkona

Dario Urzay. Zure izen-abizenei artea darie...

Pentsa, izen artistikoa dudan galdetu izan didate! Dena den, nire mentalitatea beti izan da gehiago asmatzaile eta eraikitzailearena, pintorearena baino.

Artista handia beti apal.

Pintorea izateak ez dakar artista izatea, baina artista batek pintatu dezake. Artista onak, medioa edozein delarik ere, beti eskainiko ditu gauza interesgarriak. Horregatik, nik ez dut pintore ona izan nahi, artista ona baizik.

Ahaztu obra eta landu diskurtsoa, beraz.

Nola izan daiteke diskurtsoa obra bera baino garrantzitsuagoa? Badaude artearen egituretan primeran enkajatzaren duten eta diskurtso hutsean oinarritzen diren inolako interesik gabeko lanak, baina zirrara eragiteko obra batek *speech* bat behar badu, seinale txarra.

Badakizu, artea ulertzeko artista izan behar denetik...

Pintore ona behatzaile onen bila dabil. Ez da alferrik esaten artista handiek euren zaleak sortu eta hezi dituztela. Obra bati so dagoe-nari galde egiozu zer ikusten duen eta askotan jabetuko zara ikusi gabe epaitzen hasita dagoela.

Kritikaren indarra, konpai!

Neure egiak kolokan jartzeko, egoa puzteko,

haserretzeko, edo erreakzio batzuk hobeki ulertzeko balio didate kritikek. Baina testu baten kritika onena beste testu bat da, eta ondo findutako kritika eraikitzaile gutxi dago.

Orain esadazu diseinatu zenuen Athletic-en kamiseta hura eraikitzailea zela!

Zergatik planteatu zen polita/itsusia terminoetan? Zergatik ez zen azpimarratu klubarentzat interesgarria izan zitekeela? Hauteskundeetan hautagaiaren edertasunaren arabera bozkatzaren da, ala zer?

Begoñako ama, San Antongo zubia eta Athletic-en marrak sakratuak direla, txo!

Zer sakramentu, zer tradizio, eta zer kristo? Nola ukituko nituen zibilizazio aurreko sasoietako esentziak futbola XIX. mende bukaerako bada? Kamiseta horrek ezjakintasun asko azaleratu zuen.

Denen ahotan jarri zintuelako?

Nire zati bat galdu nuen baina beste bat irabazi. Horregatik diot artista batek bere interesengan oinarrituta lan egiten badu beti bukatzen duela ahots propio bat edukitzen.

Ikusten da, bai, ez zarela galduko sailkapenen gizar-tean.

Gauzak sailkatzea euren izatea mugatzea da. Esaten dena baino lausoagoak dira limiteak. Horregatik, oso hibridoa izan naiz beti. ■

• ASTERO GAIA •

Labela elikagaietan

Zigiluaren atzean dagoena

Kalitate goreneko produktuak, hemengoak, eta berme guztiekin ekoitziak. Kontsumitzaileak ezaugarri horiekin lotzen du Eusko Label zigilua. Baina ematen den irudia eta errealitatea bat ez datozela salatzen du sektoreko hainbat aholkari.

MIKEL GARCIA

EUSKO LABEL zigilu ofiziala da, elikagaien goi-mailako kalitatea bereizteko erabiltzen den EAEko marka ofiziala, Eusko Jaurlaritzaren babespean (nahiz eta erakunde pribatua izan). Baina zeregin horretan, diru publiko asko desgoki gastatzen dela diote EHNE eta ENBA nekazal sindikatuek. EHNE Euskal Herriko Nekazarien Elkartasunak Bizkaian duen presidentearekin bildu gara, Mikel Kormenzanarekin, eta hiru kritika nagusi egin dizkio Eusko Labeli: kalitatea bermatu beharrean banaketa-kate handien mesedegarri den eredu industrial eta intentsiboa sustatzea, sektorearen parte-hartzea ez bilatzea eta baserriarrentzako errentagarritasunik ez izatea.

Ortuari kasuan, esaterako, labelak itxura ona zaintzen duela dio EHNEkoak, baina ez duela kalitatea bermatzen, neurtzen duena delako produktuak hainbeste zentimetro izatea, barietate zehatz batzuetakoa (“eta ez hemengo

barietatea, inondik inora”), zein kolore duen... Sistema hidroponikoa erabiltzen da barazki guztiak edo gehien-gehienak lortzeko. Hots, poltsetan sartu eta tratamendu kimikoeekin (hodi bidez ura, nitratoa, fosforoa eta potasioa helaraziz) hazten dituzte, negutegietan, ez lurrian. Eta hala, engainuz Marokotik ekarritako piper sorta bat gure merkatuan Gernikako Piperrak izenpean saldu zituztela kontatu du Kormenzanak, hain zuzen ekoizteko eran irizpiderik zehazten ez delako: “Ez baduzu ekoizpen eredu desberdindua bultzatzen, gauza berdina egiteko hobeto egingo dute Marokon hemen baino. Tomatea sistema hidroponikoan, negutegian eta berogailuarekin egiten badut abenduan, Marokon berogailurik gabe egingo dute, merkeago, eta gainera zaporre gehiago izango du



hangoak, baldintza klimatologiko hobeak dituztelako. Bide intentsiboa bultzatzen baduzu, eta udarako produktu bera neguan ere eskuratu nahi baduzu, ez zaizu errentagarri aterako eta gastu energetikoa handia izango da”. Labelak kalitatea bermatu behar badu, gauza horiek kontuan hartu behar direla iritziz dio sindikalistak.

Aire zabalean (edo negutegietan, baina) lurrean ereinda hazitako barazkiak sustatu beharko liratekeela uste du EHNEk, eta benetan kalitatea bermatzeko eredu ekologikoa behar dela, edo behintzat energia urriago kontsumituko duena, kimiko edo agrokimiko gutxi edo batere ez erabiliz, bertoko barietateak babestuz.

Ordea, industria buruan, hiru produktu indartu direla (tomatea, letxuga eta piperra) eta gainontzekoa alboratu dela diote: “Non daude garai batean hemen zeuden porruak, zerbak, tipula...?”. Diru publikoak sektorea suntsitu duela kritikatu du Kormenzanak, garai batean hemengo produktu zirenak kanpotik ekartzen ditugulako orain.

Labeldun esnea ere ez da nahikoa berme sindikatuarentzat, hemengo esnea dela baino ez baitu ziurtatzen. Proteina eta koipe mailak ere neurtzen dituzte, baina ez dira ekoizpen ereduan sartzen; alegia, “behiak nola dauden, zer jaten duten, zer nolako lekua duten...”.

Gurokela, Giokela, Lumagorri, Euskal Oiloa

Okelarekin antzera: txita, arkume eta behiak gizentzeko lurrari lotutako eredu merke eta errentagarriak aldarrikatu ditu Kormenzanak, ez pentsu bidez, egin ohi den moduan, belarrarekin baizik. Kontua da horretarako lur asko behar dela, eta gutxi dago Euskal Herrian, “eta dagoena nekazaritzarako ez den beste edozertarako erabiltzen da”. Pentsuek dituzten transgenikoak saihesteko eta kalitatea bermatzeko, aurreko Jaurkitzari makina bat alternatiba aurkeztu zien EHNEk; pentsuetarako beste proteina bitartekari batzuk bilatu zituzten, soja ez transgenikoa, proteajinoso batzuk pentsuetan soja ez sartzeko... Baina administrazioak urtetan entzungor egin duela diote. Gaur egun, produktore ekologikoak dira bakarrak pentsu transgenikoak kontsumitzen ez dituztenak. Kontsumitzaileak gero sektoreari kontuak eskatzen badizkio, behi-erokien eta beste hainbat kasurekin gertatu moduan, erantzukizuna politikari eta teknika-

Ortuarien kasuan, labelak itxura ona zaintzen duela dio EHNEK, baina ez duela kalitatea bermatzen, neurtzen duena delako produktuak hainbeste zentimetro izatea, barietate batzuetakoa, zein kolore duen...

“Errentagarritasun eskasa? Zer izango zatekeen, hamar urte hauetan Eusko Labelik izan ez balitz? Gogoan dut abeltzainak zeudela ezin haragirik saldu, eta irtenbidea izan zela marka bat eratzea produktua desberdintzeko”

ALAZNE URIBARRI, EUSKO LABEL

riena dela azpimarratu du baserritarrek, “beraiek erabaki dutelako dirua non sartu eta zein eredu bultzatu”.

Dena den, Eusko Labellek haragiaren kasuan ortuariekin baino irizpide egokiagoak erabiltzen dituela onartu du Kormenzanak, labelaren hasierako urteetan garatu zirelako

okelaren baldintzak, eta hastapen haietan sektoreak parte-hartze handiagoa izan zuelako: bertoko bildots eta txekorrak hazten dituzte, espazio jakin bat izan behar dute, albaitariak animalien jarraipena egiten dute... Gurokela eta Giokela marka pribatuek aldiz, kanpotik ekartzen dituzte txekorrak. Hasieran labelaren baitan aritzen ziren, baina 1997an Eusko Labellek

erabaki zuenean animalien jatorria EAEra mugatzea, beste marka baten pean lan egitea erabaki zuten. Oilaskoetan barietate atlantiko-ko txitak hazten ditu Lumagorri (labelduna), baina hemengo barietaterik ez dagoelako jada. Hain zuzen, Euskal Herriko txita arrazak berreskuratzea eta horiek hezteko da Euskal Oiloa marka pribatuaren xedea. “Guk hasieran ere pentsatzen genuen arraza horiek haztea, baina egun gure helburua da baserritik bizi ahal izatea. Horrelako arraza bat berpiztuko balitz, primeran, baina une hauetan ez da nahikoa errentagarri ateratzen arraza mota horiekin aritzea; gure okela merkatuan garestixeagoa da jada eta kontsumitzaileari jartzen badiozu hori baino garestiago... Guk bermatzen duguna da hazkuntza sistema garbia eta askatasunean egina”, adierazi du Iñaki Urkijo Lumagorriko lehendakariak.

Produktzio bolumen handiak bilatuz eta industrian pentsatuz eredu intentsiboaren alde egitea leporatzen dio Kormenzanak Eusko Labeli, eta baita Nafarroako Reyno Gourmet labelari ere, Nafarroakoa are industrialagoa dela baitio. “Eredu horrek inbertsio handia eskatzen du eta beraz produktibitate edo produktzio handiagoa, prezioak jaitziz eta baserritarra zorpetuz.

Sistema hidroponikoari heldu zioten baserritar asko eta asko desagertu egin dira, edo oso gaizki daude orain. Begira baita ere labelak sustaturiko Artzain Eskolak: 300 ardi hartzen ditu gazte batek, gaztandegiarekin eta 80 milioi pezeta gastatuta, eta zer aurkitu du? Merkatua pixkanaka-pixkanaka egin behar duzula eta 300 ardiren gazta saltzea lehenengo urtean oso zaila dela. Eta prezioak jaitsi behar, produktzioa handitzearen ondorioz”. Labela-



GMBOZONE.COM

Barazki guztiekin edo gehien-gehienekin sistema hidroponikoa erabiltzen da (poltsetan sartu eta tratamendu kimikoekin hazi). Baina EHNEko Mikel Kormenzanaren esanetan, ez bada ekoizpen eredu desberdindua bultzatzen, gauza berdina egiteko hobeto egingo dute Marokon hemen baino. Gainera, “Eusko Labelen hain harro badaude sistema hidroponikoaz, iragarkian zergatik ez dute aitona jartzen tomatea poltsan landatzen?”.

ren asmoa lehengai gehiago izatea dela uste du Kormenzanak, merkeago, erdibideko batzuek euren negozioa egiteko: alegia, nekazaritza-industriak eta banaketa-kate handiek. “Eroski da horren gidari, bere mesederako egin dira beti gauzak”.

Kritikak helarazi dizkiogu Alazne Uribarri, Eusko Labelaz arduratzen den Kalitatea Fundazioko Egiatzen zuzendariari. Eredu intentsiboa sustatzen al dute? “Markari balioa ematea da gure helburua, marka hori produktuarentzako baliagarria izan dadin, baserritarrek merkatuan lehiatu ahal daitezen, eta kontsumitzaileari Eusko Label produktuaren ezaugarri bereizgarriak igortzeko komertzializazio zirkuitu guztiak lantzen ditugu: tradizionala, harategiak... baina baita azalera handiko komertzioak, ezin baitugu ahaztu egungo kontsumitzailea horietara ere joaten dela eta gure betebeharra da kontsumitzailea dagoen tokira iritea”.

Zer pentsatzen du kontsumitzaileak?

Kalitatea Fundazioak iaz egindako ikerketaren arabera, jendeari nekazaritza-elikagaien markarik ezagutzen al duen galdetuta %85ak Eusko Label erantzun du, eta Eusko Label ezagutzen al duen galdetuta, baietz izan da %95aren arrapostua. Jende horri labelaren

ezaugarriei buruz itaunduta, lau errepikatu dituzte gehien: goi-mailako kalitatea duten produktuak direla, EAEkoak, produktu tradizionalak/baserrikoak berme instituzional guztiekin, eta garestiagoak direla. Uribarriren esanetan, “lehenengo hiru faktoreek indar handiagoa dute, Eusko Labelen kontsumitzailea fidela delako; nahiko militanteak gara hemen eta kontsumitzailea prest dago gehiago ordaintzeko, arrazoi onak badauzka”. Ordea, gezurra saltzen ari direla uste du Kormenzanak: “Kontsumitzaileak ikusten duenean tomate batek Eusko Labela duela, irudikatzen du baserriko baratzean landatutako tomate, aitona bilobarekin Anboto magalean, egiten dituzten iragarkiak halakoxeak direlako. Baina tomate guztiak sistema hidroponikoan eginak dira; hain harro bazeude sistema horretaz, zergatik ez duzu iragarkian aitona jartzen tomatea poltsan landatzen?”.

Errentagarritasun eskasa

Labelak duen asmoetako bat produktua merkatuan bereiztea eta baserritarrentzat errenta duina eskuratzea izan arren, hori ez dela lortu dio EHNEko kideak, barazkiak adibidez prezio baxutan saltzen dituztelako: “Enpresa edo kooperatibak bihurtu dira helburu, eurak handitzea eta merkatu gehiago izatea, prezio-

ak jaitsiz eta baserritarrek indarra galduz”. Behi-haragian prezio bereizgarri hori garai batean lortu zela gaineratu du, baina orain ez hainbeste. Eta bildotsarekin berdin; aspaldi bai, baina orain ez du errentagarri ikusten labelduna: “Gipuzkoan eta Araban Eusko Label zigilukoek 2,80 euro inguru kobratzen dute kiloko bildotsa eta aldiz, labeletik at funtzionatzen duen Bizkaiko Bildotsa pribatuak bikoitza kobratzen du (Erralde hiltegiak bul-tzaturiko harakin, artzain, hiltegi eta sindika-tuen aliantzari esker, transgenikoak kontrola-tuz, kalitatea bermatuz, hilketa tradizionala hobetsiz...). Ez du zentzurik hainbeste diru publiko gastatzeak, gero etekinik ez izateko”.

Alazne Uribarri digu kontsumi-tzailearengandik gertuen dauden markak

Label Rouge, Osseau-Iraty, ekologikoa eta Idoki

Ipar Euskal Herrian, ezagunak dira haragiaren eta arrai-naren kalitateari begiratzen dion Label Rouge zigilua (Frantziako Estatu osoan), eta Osseau-Iraty izendapena daraman gasna, Euskal Herriko eta Biarnoko mendie-tan egin dela bermatzen duena. Baina laborarien alda-riak biltzen dituen Donapaleuko Arrapitz Federazioak zigilu ekologikoaren arauari begiratzen die mesfidati. Europatik datorren legedian, produktu kimikorik ez era-biltzea eta halakoak zehazten dira, baina esaterako bai-mentzen da txerri eta oilasko ekologikoa leku itxietan haztea, eta Arrapitz ez dator bat, animaliak eremu ire-kietara ateratzea beharrezkotzat jotzen baitu. Idoki marka pribatuak berriz, bermatzen du etxaldean produ-zitu, transformatu eta kontsumitzaileari zuzenean sal-dutako produktuak egiten dituela. Zentzu horretan, Frantziako Gobernuak baserriko produktuaren termino-logia definitzea nahi dute Idokiko kideek, definizio falta horrexegatik *Baserrian produzitua* etiketa nolanahika erabiltzen dela baitiote, eta baserrian transformatu edo zuzenean saldu ez diren produktuetan jartzen dela.



Idoki

direla gehien irabazten dutenak komertziali-zazio kateetan, eta lehenengo kate-maila izan ohi dela kaltetuena. Horri buelta emateko alternatiba bat zirkuitu laburrak edo kontsu-mitzaile ziklo itxiak izan daitezke, baina hori gutxi batzuentzako soluzio dela gogoratu du Egiaptapen zuzendariak, kontsumitzailea oro har azalera handitan mugitzen delako. “Nik beste era batera planteatuko nuke galdera: zer gertatu izango zatekeen, hamar urte hauetan Eusko Labelik izan ez balitz? Gogoan dut 1996an abeltzainak zeudela ezin haragirik saldu, eta irtenbidea izan zela marka bat era-tzea euren produktua desberdintzeko. Eusko Label tresna oso indartsua izan da produk-tuak birbaloratzeko eta sustatzeko, merka-tuan lehiakortasuna eman die. Gustatuko litzaidake abeltzainek gehiago irabaztea, baina ez dut uste gure menpe dagoenik, beste faktore askoren esku baino”.

Parte-hartzeaz ere kexu da Mikel Kormen-zana; bi dira Eusko Labeli egiten dizkion kriti-kak: sektoreko jendearen parte-hartze txikia dagoela, eta dagoena, nahierara aukeratua, zentzuzko irizpiderik gabe. Hastapenetan (1992an jaio zen erakundea) dekalogo, arau-tegi eta protokolo zenbait negoziatu zituzten sektorearekin, baina orduetik ez dietela iritzirik eskatu dio EHNEko kideak, eta azken finean eurek ikusten dituztela produkzioaren beha-rrak, nondik nora egin behar den. “Sektoreko batzuek hartuko dute parte erabakietan, baina modu pertsonalean, ez ordezkari-tza baten ize-nean, eta desberdintasun hori funtsezkoa da. Urte hauetan guztietan sindikatuoi ez digute ezer galdetu (ezta entzun ere) eta guk dugu sektorearen ordezkari-tza, sindikatueta anto-latuta baitaude nekazari, abeltzain eta gainera-koak”. Orain arte horrela izan dela salatu du Kormenzanak, eta gobernu berriak dioela parte-hartze irekiagoa eta demokratikoagoa izan nahi dutela; “ikusiko dugu”.


Izan ere, aurreko Jaurlearitzak bere *txiringi-toa* oso ondo antolatu zuela dio sindikalistak: “Urtetan saiatu dira Idiazabal Gazta labelean sartzen, sekulako presioekin, esanez diru-laguntzak ere kenduko zizkietela sartzen ez baziren. Latxa eta Karrantzako ardiak baino ez ditu erabiltzen Idiazabalek, eta beste arra-za batzuk gehitzea nahi zuen Eusko Labelek, esne gehiago behar zela eta beste arraza batzuek esne gehiago ematen dutela argudia-tuz. Baina frogatu da ez dela esne gehiago behar, alderantziz, eredu intentsibo horrek prezioak jaitea baino ez dakarrelako”. Azke-nean, Idiazabalek ez zuen onartu labelaren irizpideetan sartzea, eta gaztaren kontrola egitera mugatzen da Kalitatea Fundazioaren esku-hartzea. Eusko Labelek, zertifikazioez gain kontrol zerbitzua ere eskaintzen baitu,

Izendapen, deitura, marka eta label saltsa merkatuan

Marka publikoetan, kalitatea edo jatorria bermatzeko xedea duten hiru zigilu mota nabarmendu ditzakegu. Adierazpen Geografiko Babestua eta Jatorrizko Deitura Babestua eremu geografiko bati lotutako zigiluak dira: bere ezaugarriak inguruaren ondorio dira eta Europak ezarritako dekretu batzuk bete behar dituzte. Europak arautua da baita ere Ekoizpen Ekologikoa bereizten duen izendapena, ekoizpen mota jakin hori babesten duena, ingurumena errespetatuz, substantzia kimikorik gabe eta abar. Azkenik, labela kalitateari lotuta dagoen zigilua da, lekuko administrazioaren sostengupean. Dena den, batzuen eta besteen arteko desberdintasunak txikiak direla dio Eusko Labeleko Alazne Uribarrik, era batera edo bestera denek kalitatea eta eremu geografiko jakin bat bermatzen dutelako.

Markak ez dira baztertzailak, osagarriak baizik. Adibidez, Eusko Labeldun arkume ekoizleen baitan, Gipuzkoako talde batek ekoizpen ekologikoaren araupean ere egiten du lan (eta arkume horrek bi etiketak daramatza), edota Gernikako Piperrak Eusko Label izateaz gain Adierazpen Geografiko Babestua dira.

Horiei marka pribatuak eta zuriak gehitzen badizkiegu, merkatuan dagoen etiketa festa sekulakoa da, kontsumitzailearentzat nahasgarri. Merkatuan desberdintzeko beharra eta eskubidea denek duten arren, marka inflazio honek kontsumitzailearen arreta sakabanatu egiten duela eta estrategia onena bateratzea dela dio Uribarrik. Esaterako, 2009an egin berri duten ikerketaren arabera, kontsumitzaile gehienek uste dute Idiazabal Gaztak Eusko Labela duela.



DANI BLANCO

euren produktuena, Idiazabalea eta Euskal Herriko hiru txakolinena. Uribarrik argitu du ekoizpenaren fase guztietan egiten dituztela kontrolak, 4.000 bat ikuskaritza eta beste hainbeste ebazpen analitiko.

Parte-hartzearen inguruan Egiartzapen zuzendariak gaineratu du sektoreko ahots guztiak entzuteko borondatea dutela. Zuzendaritza ondorengoek osatzen dute: Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza sailburuordea (lehendakaria); administrazioaren beste bost ordezkari, Kalitatea Fundazioko lehendakaria, Uribarri teknikaria bera eta sektoreko bost delegatu (Blond Akitaniaren, Lumagorriren, Kaikuren, Getariako kofradiaren eta Ortularien Elkartearen ordezkari bana). Batzorde profesionaletan hartzen dira erabakiak, politikariek, teknikariek eta Eusko Labeleko ekoizle handienek osatuak, eta sektoreak ordezkaritza nahikoa duela uste du Uribarrik. "Sindikatuak ez dute presentzia estandarizaturik gurean, baina eurek eskatu ahala harremana dugu".

Alternatiba ez da bidea

Salmenta zuzenak geroz eta indar handiagoa hartu du hainbat eta hainbat herritan, beti ere atzean eredu eta berme bat duela. Kormenzanaren ustez, kontsumitzaileak ikusten du marka tradizionalak ez diotela nahi duena bermatzen, ez dakiela zer jaten duen ez non-

"Urtetan saiatu dira Idiazabal Gazta Eusko Labelen sartzen, esne gehiago behar zela-eta atzerriko ardi-arrazak erabiltzeko eskatuz. Baina eredu intentsibo horrek prezioak jaitea baino ez dakar"

MIKEL KORMENZANA, EHNE

dik ekarria den, eta nekazariek ez dute marka nahiz labelarekin errentagarritasunik lortzen; ondorioz batzuek eta besteek elkar topatzen dute bidean: "Baina oso tristea da hori, kontsumitzailea eta baserritarra bakoitza bere aldetik ibili behar izatea, eta bitartean diru publikoa gastatu eta gastatu aritzea".

Horregatik, labelaren aldeko apustua egiten du EHNE sindikatua. Argi utzi nahi dute ez daudela labelaren edo kalitatezko markaren kontra, alderantziz, baina kalitatea eta errentagarritasuna bermatuko dituen labela nahi dute. Hori baita norabidea, marka pribatuei eta zuriei aurre egiteko. "Kritikatu dugu baliabideak industriaren eta banaketa-kateen mesedetara jartzen direla; marka zuria urrats bat harago doa eta zuzenean industria kentzen du erditik, banaketa-kateak are gehiago indartzeko. Prezio baxuagoak ezartzeko erabiltzen dituzte marka zuriak banaketa-kateek, jaun eta jabe bilakatuz eta behean daudenen mozkina ezeztuz (industriarenak eta batez ere produktorearenak)". Gaur egun Espainiako Estatuan merkatuaren %60a hipermerkatuetako bost marken esku dagoela gogoratu du Kormenzanak, eta beraz baldintzak eurek jartzen dituztela. Garbi du panorama honen guztia- ren aurrean galdetzen, eskatzen eta exijitzen hasi behar dugula kontsumitzaileok, erosle pasibo izateari utziz. ■

Inazio Olarreaga

«Oraingo euskaldunak hiltzen direnean, akabo»

Euskal Herritik Amerikara etorri ziren, zuzenean eta artzain. Zenbait, pilotaren bidetik sartu zen. Horixe da Inazio Olarreagaren kasua, Italiatik, Kubatik eta Miamitik barrena heldu baitzen Nevadara.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero

Etzea ardiz eta gisako apaingarriz betea duzu, baina zu ez zara inoiz artzain izana...

Ez, ez, behin ere ez naiz artzain ibili, baina badakizu, hemen, Nevada alde honetan “basque” esan eta “a! Hortaz, artzain!”, pentsatzen dute. Egia da hemen ezagutuko dituzun euskaldun gehien-gehienak artzain etorri zirela, eta euskaldunak artzainaren bidez duela izena hemen, baina ez da nire kasua. Kuban ari nintzen pilotan, zetan, 1958an joanda, eta handik sartu nintzen Amerikara, Orlandoko frontoian jokatzera.

Kuban zinen, Habanan, Batistak hanka egin eta Fidel, Che eta gainerakoak sartu zirenean. Iraultza garaia bizi izan zenuen.

Han nengoen, baina ez nintzen askorik akordatu. Pilotari ari nintzen, Juanito Saizarbitoriaren euskal etxean ere laguntzen nuen, sukaldean, eta askoz gehiago ez nuen egiten. Bagenekien Batista nola zebilen, ahal zuen guztia harrapatzen, handik eta hemen poltsikoak betetzen —baina Batista bezala, ahal

zutena harrapatzen zuten poliziek eta kargu txikiena ere zuten guztiek—, eta, hortaz, egun batean esan zutenean Batistak hanka egin zuela, ez ginen askorik harritu. Fidel Castro, Raul, Che eta horiek Habanan sartu zirenean, berriz, gu betiko bizimoduan ari ginen. Ni, behintzat.

Habanan pilotari, eta Juanito Saizarbitoriaren euskal etxean sukalde lanean, laguntzen.

Bai. Juanitok asko lagundu zidan. Oso gizon ona zen. Etxetxoren bat edo bi zituen euskal etxe parean eta hantxe bizi izan nintzen pilotari jardun bitartean. Ordainetan, sukaldean laguntzen nuen. Beste pilotari batek ere laguntzen zuen, Tomas Arrizabalagak. Ez zait behin ere ahaztuko, hantxe biok, ganbak zuritzen edo beste ezertan, eta nola etortzen ziren Fidel eta koadrila euskal etxera, jatera. Lehenengo, G2ak, polizia sekretuak sartzen ziren, dena konfiskatzen zuten, zein eta zein ari ote ginen han. Gero sartzen ziren Fidel eta besteak. Juanitoren lagun egin ziren.

Nortasun agiria

Inazio Olarreaga (Azpeitia, 1939). Pilotari ikasi zuen Tolosako Beotibar frontoian, eta Madrilen eta Italian, Habanan baino lehen. Han zen 1958an, eta hantxe 1959ko lehenengo egunean, Batistak alde egin eta Fidel Castro eta gainerakoak Habanan sartu zirenean. 1962an Orlandon zen, pilotan

jokatzen, eta Renon (Nevada) handik hiru urtera. Bertako euskaldun askoren legean, eraikuntzan jardun zuen, duela hamasei urte erretiroa hartu zuen arte. Emaztearen ondoan eta zaharrak zaintzen ematen du denbora, eta istorio-historia paskizan beti.





Bridgeport herrian gora atera ditugu argazkiak, Kalifornia eta Nevadako mugan. Hemen, duela bi urte 6.000 ardi ageri ziren garai honetan. Egun, artzainek lur gozo guztiak eta ardiak salduak dizkiote abeltzain enpresa handi bati.

Zer diozu iraultza giroaz?

Esan dizut, bada, ez nintzela askorik akordatu. Nahiko lan banuen neure buruarekin. Esaterako, han pilotan ari nintzela, ni hara eramanez, Jeremias Abalia, konturatu zen eskuin aldetik pilota asko huts egiten nuela. Pilotari kontrarioak ere konturatu ziren, eta alde hartara bidaltzen zizkidaten pilotak! Gaiztoak ziren, gaiztoak... Halako batean, sendagilearengana eramanez, eta eskuin begitik ezer ez nuela ikusten erabaki zuten. "Noiztik habil horrela?", galdetu zidatenean, "betitik!" erantzun nien nik, txikitatik ibili nintzen-eta horrela. Iraultza? Guk ez genuen telebistarik ez irratirik ez ezer. Gerora bai, jende kontzentrazio handiak egiten hasi ziren, Marti plazan-eta, eta akordatzeko naiz Fidel sei-zazpi-zortzi orduko mitin monumental haiek egiten hasi zela, irratian zer edo zer aditzen genuela. Beti hau eta hura agintzen Fidel, nekazariei lurrak emango zizkiela, hau eta hura egingo zuela... baina azkenean ezer ez, janaria bera ere eskasten hasi zen, hiru uztan biltzen ziren herri batean!

Amerikarra

"1967an Euskal Herrira joan nintzen, familiak nire emaztea ezagutzeko. Ailegatu ginen Madrilera hegazkinez, eta gero trena Azpeitira joateko. Trenean, lehenengo ikuskatzailea, txartel eske. Eman genion. Gero, polizia sekretuak, agiri eske. Emazteak eman zien berea, ikusi zuten, eta itzuli zioten, besterik gabe. Hartu zuten nire, ikusiko zuten 'Olarreaga', eta da!, zakar bota zidaten. Ez zitzaidan gustatu. Oraindik akordatzeko naiz. Ni amerikarra nintzen ordurako!"

Nola hartu zenuen Miami bidea?

Fidel eta haiek agintzen jarri zirenean, turismoa jaisten hasi zen, eta turismoarekin batera, dirua. Aurretik, turistak eta Habana bertakoak etortzen ziren frontoira, baina pixkanaka-pixkanaka, gero eta jende gutxiago zetorren. Gainera, dirua ere aldatu zuten, eta bertan beste inon balio ez zuena jarri zuten. Bistan zegoen gure Habanako kontu hura kito zela, eta martxa egin genuen, alde.

Nola egiten da "martxa" Kubatik AEBetara?

Bisatua eskatu ziguten. Gu pilotari ginen, eta kontaktuak ere bai frontoian, eta Jamaikara joan ginen. Han atera genuen bisatua. Paper harekin sartu ginen Miami. 1962an, oker ez banago. Han ginen Sabino Arana, Astigarraga, Abasolo, ni neu... Orlandoko frontoia egin berria zuten, eta han jokatu genuen, hiru urteko kontratuarekin, eta kontratua bukatu zenean, beste zer edo zer bilatu behar izan genuen. Eta Nevadara etorri ginen, Renora. Horretan gure zestagileak izan zuen zerikusirik handiena. Caliche zuen izena, Renon jaioa zen, hemen zituen gurasoak; euskal frantsesak, edo nafarrak, ez nago seguru. Calichek hona etorri nahi zuen, lanera. Orlandoko kontratuaren bigarren urtean, ikusi genuen zer panorama zetorren. Ni ez nintzen pilotari on-onetakoa, bigarren mailakoa nahi baduzu, eta Renora etorri nintzen Caliche eta beste pilotari batzuekin, hemen lanik izango ote zen begiratzera. Baietz iruditu zitzaigun, eta Orlandokoa bukatu eta Renora.

Eraikuntzan egin zenuen lan urte askoan.

Bai, pala eta pikatxoia hartuta. Lehenengo, lorezaintzan egin nuen. Bazen donostiar bat, Joe Moulian, hark ireki zigun bidea. Gero, zerrategian lan egin nuen, eta ondoren hasi nintzen eraikuntzan. Diru gehiago irabazten zen. Hasieran gogor xamarra izan zen, baina laster hartu genion tamaina. 1968an hasi nintzen eraikuntzan, Byers enpresan, eta gero Helms-en.

Zorakeria

"Ikusten duzu zenbat auto batetik bestera? Jende askok Renotik aparte, ordubeteko bidean-eta, erosi zuen etxea, merkeago zelako. Etxea merkeago bai, baina urtean gasolinan gastatzen dutena kontuan hartuko balute, ez dela merkeago konturatuko lirateke. Eta hor ikusiko dituzu, goizeko zazpitan, auto ilarak Renora bidean. Eta arratsaldeko hirurak, hiru eta erdietan, auto horiek denak berriz ere ilaran, Renotik kanpora. Ez al da zorakeria?"

Euskaldun asko ziren eraikuntzan garai hartan Renon.

O, bai! Byers-en, Mike Inda izan nuen maior-domoa [arduraduna]. Gero, Joe Bengoetxea, Ramon Jaio, Xanti Basterretxea, Nikolas Olaziregi, Juan Braña, Jose Santxotena, Ray Uharte, Jess Etxeita, Txato Gerrikagoitia, Sarratea anaia bat baino gehiago eta mordo handi bat tokatu zait lanean, ondoan. Horiek eraikuntzan ezagutu nituen. Euskaldunak eraikuntzan Renon, asko garai batean. Renon ez ezik, Nevadan batean eta bestean ibili ginen lanean, Winnemuccan, Kaliforniako Bridgeport aldean eta agintzen zuten leku guztietan. Batean errepideak, bestean zubiak, tokatzen zena! Orain dela hamasei urte erretiratu nintzen, bota nituen harrika pala eta pikatxoiak eta kito. Zer egunetan bizi garen ere ez dut jakiten. Sasoi batean soldata noiz jasoko zain bizi ginen. “Gaur tokatzen dekl!”, eta zain. Orain, erretiratuta, zuzenean sartzen digute dirua bankuan, eta noiz bizi garen ere ez dugu jakiten. Horixe pasatzen da zahartutakoan. Igandean mezatara joaten gara eta horrexek laguntzen digu pixka bat astea gobernatzen. Bestela, akabo.

Euskaldun asko Renon, eta euskal kluba eta jaia ere bai hemen.

Bai, eta hasieran joaten nintzen, hemengo Zazpiak Bat klubekoa egin nintzen, eta bi edo hiru urtean euskal festibalera ere joaten nintzen, eta ez bakarrik Renokora, baita Winnemuccara ere, Frank Txurrukarekin. Berriatukoa da. Gero, nekatu egin nintzen, hainbeste euskaldun eta hainbeste istorio. Orain dela urte batzuk, ordea, berriz azaldu nintzen festara, baina nire lagun amerikano batek nahi izan zuelako. Hari gustatu egiten zitzaion euskal festara joatea, eta nik lagundu egiten nion. Zaharra zen, hil zen, eta kito, ez naiz berriz azaldu.

Renoko Zazpiak Bat klubaren azken buletina irakurri dut. Bederatzi hildakoren berri dakar.

Seguru! Eta argi ibili, oraingo euskaldunak hiltzen direnean, akabo. Gazteek ez dute interesik. Horixe da nire irudipena. Hara, esango dizut, oraintxe, izen euskaldun gehienak mexikarrenak dira, ez euskaldunenak. Arriaga, Arriola, Etxeberria... Hasi izen hori duenari galdetzen, eta gehiago dira mexikarrak, euskaldunak baino. Gazteek ez dute interesik, eta askotan gurasoen falta da: tradizioa zaintzen ez diegu erakutsi, hitz batzuk euskaraz esaten. Beste gauza bat, lehen, “basque” esan, eta jendeak bazekien zer ari zinen esaten. Gaur egun, ez. Azkeneko hamabost urte honetan sekulako immigrazioa izan dugu Renon, AEBetako hainbat estatutatik etorritako jendea, eta haiek

Frantzisko Aranda

“Iaz hil zen Frantzisko. Lagun estimatua nuen. Lanean elkar ezagutu genuen, aspaldi. Bera *bracero* izana zen, Bigarren Mundu Gerra bitartean Mexikotik hona lanean etorritakoa. Mexikoko eta hemengo gobernuak akordioa sinatu zuten, eta halaxe etorri ziren *bracero*ak. Euskaldunak artzain, eta mexikarrak *bracero*, trenbideak egiten eta Kaliforniako soroetan fruta eta barazki biltzen. Historia eta istorio handiak kontatzen zituen. Hil zen hura ere”.

Atxaspi Hotela



ametsetan bezala.

Bittiria 24
Lesaka (Nafarroa)
T 948 637 536

hotela@atxaspi.com
www.atxaspi.com



AZKEN HITZA

Artzain

"71 urte ditut, aspaldi erretiratuta. Ez naiz behin ere artzain izan, hemengo euskaldunak ez bezala, baina, orain, zahartuta nagoela, gus-tura hartuko nituzke ardi batzuk, terreno koxkor bat eta ardiak zaindu. Horixe egingo nuke".

ez dute "basque" horren berririk. Aldiz, Nevada eta Kaliforniako Cedarville, Eagleville, Alturas eta horietatik etorritako jendeak bada-ki, han ere euskaldunak izan direlako. Indioen azkeneko borroka ere hantxe izan omen zen. Hiru artzain euskaldun hil zituzten indioek. Hori ere bai.

Ez zara gaztea, baina zaharragoei laguntzen ematen duzu denboraren puska bat.

Bai, zintzo izan beharra dago mundu hone-tan. Gainera, orain, hanka bat zuloan dauka-gunean. Ez gara betiko, badakit nik hori.

Facundo Amoztegi ere lagundu zenion.

Facundo Amoztegi? Gerlach-en bilatu nuen, Nevadako desertuan, Lovelock-era zihoala 2.000 ardiko artalde hartuta. Arratsaldea zen, laster ilunabarra. Ni Black Rock desertu-

tik nentorren. Indioen harriak, geziak eta holakoak bilatzen askotan ibili izan naiz, jende askok egiten du hori, baina orduko har-tan harriak, fosilak biltzen ibili nintzen. Bidean, *pickup*-ean nentorrela, ardiak ikusi nituen mendi magalean. Dena zuri-zuri, elu-rra egin balu bezala. Gerlach-en, eta ardiak, artzaina euskalduna izan behar zen, derrigo-rrez. Geratu nintzen, jaitsi, eta artzaina zego-en aldera hasi nintzen. "Euskalduna?", hots egin nion, eta berak: "No hablo vasco". "¿No eres vasco?", eta berak: "Sí, soy vasco de Navarra". Zaharra zen. Ordurako, euskalduna utzita zegoen ardia. Eta Facundo zaharra artzain! Handik atera nuen eta eraikuntzan sartu nuen, lanean. Langile ona zen, fina, baina ez zekien ingelesik, eta aginduak ez zituen behar bezala entenditzen. Nire taldean tokatzen zenean lanean, neuk zuzentzen nuen, baina bestela... Eta lanik gabe utzi zuten. Artzain eta eraikuntzan aurreztutako dirua hartu eta Nafarroara itzuli zen, eta harrezkero haren berririk ez dut izan.

Amerika honetan bizi zara, amerikar hiritarta-sunaren jabe. Amerikar zara...

Amerikarra. [Isilaldi luzea] Euskaldun amer-ikarra, zer gero! besteak hor dabilta, txina-tar amerikarra, irlandar amerikarra eta hala-koak esanez. Berdin ni, euskaldun amerikarra naiz. ■



argia


argia.com/multimedia

Bertsio digitaletik harago Argi berri bat sarean




BIDEOAK:

Elkarrizketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.



DIAPORAMAK:

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.



EKITALDIAK:

Euskal Herriko txoko ezberdinetan emandako hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean euskaraz.



ARGAZKI-GALERIAK:

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.



FILM-LABURRAK:

Euskarazko film-laburren hautaketa.

• Maitane Falagan, gorren interpretea •

«Zeinu hizkuntzaren ofizialtasuna onartu gabe dago oraindik»



Itzulpengintza eta Interpretazio ikasketak bukatuta, zeinu hizkuntza ikasteari ekin zion Maitane Falagan EIZIEko kideak eta zeinu hizkuntzako interpretazio zikloan izena eman. Berehala liluratu zuen gorren komunitateak, eta ahozko interpretaritza gustuko bazuen ere, zeinu hizkuntzako interprete lanetan aritzea erabaki zuen ber-bertan.

MIREN IBARLUZEA

Argazkia: Maitane Falaganek utzia

EUSKAL GORRAK du lantoki Falaganek, irabazi asmorik gabeko erakundea. Interpretazio zerbitzua eskaintzen dute bertan, eta zerbitzu horretan egiten du lan. Horrez gainera, Hezkuntza Bereziko Irakaskuntza ikasketak egiten ari da EHUUn.

Zertan da zeinu hizkuntzako interpreteen lan panorama?

Zenbatgura lan dago gorren interprete aritzeko, baina behar genukeenaren laurdenera ere ez gara iristen. Izan ere, zeinu hizkuntzaren ofizialtasuna onartu gabe dago oraindik, eta

polemika handia sortu da horren inguruan: ahozko hizkuntza bi dira ofizial Hego Euskal Herrian eta, antza, agintariek ez dute argi ahozkoak bi izanagatik ez dutela zeinu hizkuntzek ere zertan bi izan, ahozkoa eta zeinuzkoa zein bere aldetik garatzen baitira. Ofizialtasun ezak ikaragarri eragiten du gorren komunitatean, eta haiek dira kaltetu zuzenak, baina guk haien alde lanean jarraituko dugu.

Zer aukera dago zeinu hizkuntza ikasi eta interpretatze lanetan trebatzeko?

Zeinu Hizkuntzako Interpretazioa ikasteko

Goi mailako Formakuntza zikloa egin behar da. Dena den, bada tranpa antzeko bat hor, ezen, nola liteke Itzulpengintza eta Interpretazioa lizentziatura izanik, Zeinu Hizkuntza-ko Interpretazioa bi urtetako ziklo batean egin ahal izatea? Are gehiago, Itzulpengintza eta Interpretazio ikasketetan izena emateko norberaren hizkuntza eta atzerriko hizkuntza bat (gutxienez) menderatzen dela ziurtatzeko azterketa gainditu behar da; ziklora sartzeko, oster, ez du batek aurretiaz zeinu hizkuntza jakin beharrik. Gauzak hala dira momentuz, espero dugu baina, hemendik zenbait urtetara Zeinu Hizkuntzaren Interpretazio ikasketak unibertsitatean ematea, ez dago batere argi dena dela.

Itzulpengintza ikasketak eginga zara eta zer alde dago ahozkoa edo zeinuzkoa interpretatzean?

Ez dute zerikusirik. Informazioa jaso eta botatzeko kanalak ez dira berak, ahozko interpretazioan entzumena eta ahotsa erabili behar dituzu, zeinu hizkuntzaren interpretazioa egitean, oster, ikusmena, ahotsa, entzumena, eskuak, eta gorputz eta aurpegiko adierazpena. Aldea hain nabaria izanda, ez dago erkaketa egiterik.

Gorren interprete aritzeak asko du sozialetik, eta hori eguneroko jardunean igarriko duzue, ezta?

Bai, nahi ala ez gertatzen da. Gorren komunitatea txikia da eta gehienak ezagutzen dituzu, noizbait tokatu zaizulako baterekin eta bestearekin interpretazio zerbitzu bat egitea, dela medikuarenean, abokatuarenean, denda batean, ikastaro batean... Beraz, kongresu batean, esaterako, ahozko interpreteak ez du erabiltzaileekin harreman zuzenik, baina zeinu hizkuntzako interpreteak ezagutu egiten du askotan pertsona gorra, eta harremana estuagoa izaten da nahi ala ez.

Zeinu hizkuntzako interpreteok gizarte

"Gor bat medikuarengana baldin badoa, osasun zerbitzuek ez dute zeinu hizkuntzako interpretea ipintzen. Bidegabekeria galanta da"

interpretazioa egiten dugu, gizartean kontzientzia falta dago. Eguneroko lanean, konturatu naiz, esaterako, orokorrean ez duela jendeak batere argi zein den gure lana: sarri gertatu izan zaigu entzuteko gai direnak espero izatea interpreteak pertsona gorrari ulertzen ez duena azaltzea. Askotan errepikatu behar izaten dugu nor garen eta zein den gure lana, interpreteak garen aldetik kode deontologikoa dugula, neutraltasuna, fideltasuna, konfidentzialtasunari men egiten diola.

Ez da erraza, erabiltzaileak pertsonalki ezagutzen zaituzte eta profesionalki ere zerbitzuak egin behar izaten dituzu haiekin. Interpreteok ondo dakigu bi paper horiek bereizten, eta baita gorren komunitateak ere; besteek, ordea, askotan konfiantza falta izaten dute.

Gure interpretazioa gizartearentzako zerbitzuen alorren barruan egonik, oso maiz gertatzen da zeinu hizkuntzako interpreteak boluntarioak direla uste izatea. Horrek gure irudi profesionala gutxiesten du.

Gorren ahots zaren aldetik, baduzu aldarrikapenik egiteko?

Gaur egun, oraindik, gorren komunitateak ez ditu hizkuntza eskubideak bermatuta. Espainiako Estatuan zeinu hizkuntza ofiziala egin badute ere, oraindik EAEan ez dute ofiziala egin. Atzean geratu gara, gorren komunitatea ez da berdintasun egoeran bizi. Zeinu hizkuntza talde txiki baten hizkuntza bada ere, ezin ditugu gure artean bizi diren hainbat pertsonen hizkuntza eskubideak urratu. Etorkinei, barbarako, aldebereko telefono bidezko interpretazio zerbitzua ematen diete erakundeek, eta ederto deritzot, baina gor bat medikuarengana baldin badoa, osasun zerbitzuek ez dute zeinu hizkuntzako interpretea ipintzen. Bidegabekeria galanta da. ■



lagunekin euskaraz

interneten ere bai!

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Kanpotik



ondartzak Donostia hiriaren ezaugarri nagusietako bat dira. Baina parte-hartzeari buruz, sormenari

CONCETA PROBANZA



José Luis Padroñ



Rozas



Urkiza

buruz, kulturari buruz eta ilusioei buruz ditugun ideiak ez ditut ikusten bere olatuengan islatuak. Harea ukitu bezain pronto, itsasotik irten eta berehala izoztu egiten diren olatuak besterik ez dut ikusten inguruan. Areago oraindik, beti gauza bera egiten duten ekintzez eta beti gauza bera esaten duten hitzez jositako izeberg zaharrak baino ez ditut ikusten.

Bizitza guztian gogor lan egindakoa naiz, kultur irakaskuntzaren bitartez parte-hartze kritikoa gizaki bakoitzak norbere kasa duen zeregin horren erdian jartzeko eta partaidetzarako lengoaia berri bat gizar-tearen aurrera agertzeko. Kultura, bai, kultura! Eta horixe izan da, kultura esaten diogun hori hain zuzen, horretarako eragozpenik handiena. Gaur, gure kultur erakundeek egiazko betekizuna, haien betekizun bakarra dela esango nuke, sorkuntzaren indar kulturala indargabetzea da, egunero-egunero. Hemen, parte-hartzea, botere erregimen guztiek agindutakoa betetzea da, administrazioaren egitasmo antzuetan sartzea. Nik, behin jarri nuen nigan eta besteengan nire esperantza, eta lanpostua kendu behar nien beldur-ikaraz begiratu zidaten, “aurrerakuntzaren” ate guztiak itxi baino lehen. Eta denbora pasatzen da, eta kultura-plan berri bakoitza aurrekoa baino okerragoa da, nahitaez. Zergatik? Kultura kapitalaren (*Capital Cultural*, kointzidentzia bitxia) zerbitzuan dagoelako. Eskoletan, unibertsitatean, kultur etxeetan, leku guztietan. Kultur aurrerabideak etorkizunaren zerbitzuan. Etorkizuna etorkizunaren zerbitzuan. Haiek guretzako nahi duten etorkizunaren zerbitzuan, jakina. Etzazula halako aurpegi goibela jar, lagun mai-

tea —esaten didate—, zure parte-hartzea den askatasun ariketaren bitartez, zure etorkizuna aintzat hartzen saiatzen ari gara! Kontu horretan gauza benetan triste bat baino ez dago: etorkizunaz halako ezaxolakeriaz mintzatu ahal izatea. Etorkizuna saltzen digute, orainean parte hartzeko aukera

guztiak ezabatuz. Eta hor parte hartzea gorrotagarria iruditzen zait. Etorkizuna ez baita politikariek etorkizunerako egiten duten etorkizuna. Beste bat da. Politika eta kultura

ere beste batzuk diren bezala. Jada ez dagoen horretaz guztiaz niri bizirik zer geratzen zaidan, gauza gutxi, egia esan, baina egia da ere, gutxi horrek hor jarraitzen duela beti, bizirik. Munduan, Ana, Ixiar, eder maiteak, diruak agintzen du, eta diruak agintzen jarraitzen duen bitartean, plana erraza eta ona da, guk erregimenak promesten digun etorkizuna-

ren zati bat erosi nahiko dugu, eta hori egiten badugu, mundu guztiak txalotuko gaitu, baina egiten ez badugu, kanpoan utziko gaituzte. Hala ere, ezin sinetsizko gauza zoragarria da kanpoan izatea, eta kanpotik, ahal den gutxi hori guztia egiten jarraitzea. Barrutik inposatu nahi zaigun guztiaren kontra, diruaren kultura bultzatzen duten, diruarekin guztiz bat eginik bizi diren erakundeek proposatzen digutenaren kontra, bost axola niri nondik den, euskal gobernutik ala espainiar gobernutik, erabat bizi izan naiz haietatik oso kanpora, oso urruti, oso margenean. Ixiar, Ana, arrazoia eman nahi dizuet, norberak ezin duela ezer bakarrik, nik pertsonalki ezin dut ezer, bakarrik egonda boterearen zerbitzura jarraitzen dudalako, diruaren beste bezero bat baino ez naizelako. Horregatik parte-hartzeaz hausnartzeaz gain, zuekin parte hartzeko konbentzitu naizue, baina barrutik ez, kanpotik baizik. ■



Etorkizuna saltzen digute, orainean

parte hartzeko aukera guztiak ezabatuz.

Eta hor parte-hartzea gorrotagarria iruditzen zait.

Etorkizuna ez baita politikariek etorkizunerako

egiten duten etorkizuna. Beste bat da



GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Joxemari Carrere Zalsala

IPIIN KONTALARIA

Estandarra bortxatuz

Berrirakurtzen dut Dario Fo-ren *Aktorearen Eskuliburu Minimoa* (*Manuale Minimo dell'attore*). Egile italiarraren idazteko estiloaz gozatzear gain, antzerki ikasbide zoragarria dugu liburu hau. Antzerkia ez da, besterik gabe, eskenatoki batean —edozein eratakoa delarik— istorio bat azaltzea publiko baten aurrean; hori baino gehiago da, edo behar luke izan. Antzerkia pentsatzeko eta gogoetarako bidea da. Euskal hiriburu bateko antzerki programatzaile batek, elkarrizketa batean zioen ikusleak, antzokira zihoanean, bere arazoez ahaztu nahi omen zuela. Ez dakit bere leku pribilegiatu horretan antena berezirik ote duen halakorik jakiteko; ez dakit ere, ikuslea asmo horrekin ote doan antzokira; baina antzetzokira agertzen dena arazoez inguratuta bizi da, kristo guztia bezala. Hori horrela izanik, nola liteke eskenatokian ezer ez gertatzea? Nola liteke antzerkia mundutik aparte dagoen zerbait izatea? Eztabaida zaharra bezain egungoa dugu hau. Horregatik Fo irakurtzeak zalantzak argitzen laguntzen digu, niri behintzat: “Eta gure betebeharra da, edo, nahiago baduzue, gure eginkizun profesionala, egile moduan, zuzendari, antzerkiko jende moduan, errealitateaz hitz egitera heltzea,



DANI BLANCO

eskema estandarra bortxatuz, fantasiaren pizgarriarekin, ironiarena, arrazoiaren zuri-keriarekin. Horrela aurre egingo diogu botereak ezarri nahi dituen egitarauari eta estrategiari: ikusleari irakastea bere zentzu kritikoa ez erabiltzen; burmuin planoa eta fantasia hutsa izaten”.

Geure buruari galdetu beharko genioke ea zer demontre azaldu nahi dugun jende aurreko lan bati ekiten diogunean.

Jende aurrean jartzen garenok zerbait aurkeztu nahian, zorte izugarria dugu, izan ere, nork dauka aukera hainbat jende —egia da, askotan gutxiegi— ea zer kontatzen diogun zain egotea? Eta ordainduta askotan! Antzerkia baliabide ederra dugu honetarako, baina gogoeta ezinbestekoa izango da, ez bakarrik istorio bera asmatzeko, baita ere estetikaren gainean, hizketaldian, pertsonaien osaketan, zuzendaritzan. Azken aldian aukera izan dut

antzerki talde amateur eta antzerki tailer batzuen lana ikusteko —eta okerreana, epaitzeko!—. Deigarria egin zait nola gehienetan Fok aipatzen duen estandar hori erabiltzen den. Harrigarria egiten zait zeinen sartuak dauden aktuatzeko eredu batzuk, istorioak kontatzeko manera *telebisiboak*; ekintza berak hartzen duelarik garrantzia, alegia, antzerkia egiteak; zertarako ordea? Auskalo. ■

« Harrigarria egiten zait zeinen sartuak dauden aktuatzeko eredu batzuk, istorioak kontatzeko manera *telebisiboak* »

TXANDAN

Amatiño



*L'enfant terrible*arenak: 1982ko urritik abendura bitartean prestatu genuen telebista-programazioa elebiduna izan zen. Urteberriko aurreneko saioak euskaraz zein gaztelaniaz izan ziren horregatik.

Urtarril hartan erabaki zen, ordea, ordurarte-ko esperientzia guztiek arras frogatzen zutela komunikabide elebidun denetan beti amaitzen zela gaztelania gailentzen euskararen kaltetan. Alegia, erdaldunek onartu lezaketen euskarakopurua hutsaren hurrengo delak euskaldunen-tzat, eta euskaldunek gutxienez jotako eus-

L'enfant...

kara, aldiz, lar dela erdaldunentzat. Arrazoi soil bezain sakon honi esker sortu zen ETB1 elebakarra eta horregatik, hain zuzen, gaur arte iraun.

Orain, oster, badira hainbat euskaltzale argi, aditu, jakitun, maisu eta ez dakit zer gehiago, euskararen gizarte-normaltzearen onetan komunikabide publiko elebidunen apustua egin nahi dutenak. Segurutzat oso bizkorak izango dira baina ez dute batere erantzukizunik, *l'enfant terrible* hutsak dira. Eman bai ideiak eta gero, errua, adituen proposamen onak kudeatzen ez omen dakiten politikoena izango da. ■

Joxerra Aizpurua

INGENIARI INDUSTRIALA

Auzatik Behartzunera, ezer berririk ez

A

uza eta Behartzun bitarteko lurrak behatzea egokitu zitzaigun 1981. urtean, soldaduska egiten ari ginenetako batzuei. Eguna joan eguna etorri, aginpidea zutenek “ezer berririk ez” esaten zioten elkarri.

Urte hartan, egitura militarra eta egitura-ren katebegi bakoitzean egokitzen zaionaren zeregina hurbiletik ezagutzeko aukera izan nuen. Ia 30 urte pasa ondoren, egitura militarra, militarren artean ez ezik, gure gizarteko egitura gehienetan ezarrita dagoela ikusten dut: elizan, administrazioan, familia tradizionalan... Areago, askotan, gauden tokian gaudela, egitura militarren funtzionamendu-arauak jartzen ditugu konturatu gabe abian, eta bereziki gizonezkoak garenok, gizartean dugun nagusitasun historikoa dela medio.

Euskal Herrian enpresaburuen arteko bil-tzar ugaritan parte hartu dut eta enpresetako kudeatzaile gehienak gizonezkoak dira eta horietatik asko nire adinekoak edo zaharragoak. Enpresaburu horiei berrikuntzan inbertitu behar dela entzuten diegu egunero, eta berrikuntzari buruzko zenbait definizio botatzen dizkigute. Besteak beste, “Negozioa prozesuetan antolatuta behar da”, “bezeroa bazkide teknologiko gisa hartu behar dugu”,



DANI BLANCO

“aldaketarekiko dagoen erresistentzia gain-ditu behar da”, “laneko metodoak aldatu behar ditugu” bezalako esaldiak entzungo ditugu. Esaldi horiek foroetan errepikatzen dira eta ondoren enpresetako kudeatzaileek euren zuzendaritzapeko katebegietako arduradunei transmititzen dizkiete.

Enpresa batzuetan besteetan baino arrakasta handiagoa izaten du berrikuntzaren

inguruko jarduerak, baina gehienetan oso prozesu motela izaten da, esperientziak eta nire inguruko adibideek erakutsi didatenez. Zerbait lortu ahal izateko berrikuntzaren kulturarekin bat egin behar dugu, egia da. Baina nagusiki kudeatzaileak dira etsenplu izan behar dutenak eta hementxe dago, hain justu, arazo nagusia: gure kudeatzaileak kultura militarpeko gizonezkoak dira, besteei esan bai baina beraien boterea eta

egitura mentala aldatzen ez dutenak, egitura piramidalarekin segitzen dutenak.

Horrelako baieztapen orokorrak egitearekin batera ziur nago salbuespen ugari egin behar direla, baina ziur nago kultura militarrik gabeko kudeatzaileekin, emakumeak edo gazteak adibidez, berrikuntza-prozesu sintzero eta azkarragoak bizi izango genituzkeela. Bitartean berrikuntza-planetik planera “ezer berririk ez” edo hobe esanda “oso berri gutxi”. ■

Gure kudeatzaileak kultura militarpeko
gizonezkoak dira, besteei esan bai
baina beraien boterea eta egitura
mental aldatzen ez dutenak

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



*Visca el Barça*rekin batera oihukatu zuten Nou Campen behin eta berriz futbola jokoa, jolasa eta zenbaitengan artea ere badela erakutsi ondoren jokalariek. Telebistaz ikusi nituen, bertan madrilezale zenbait inguruan nituela. Yaya Touré Messik egindako golean eraikitako jokaldiaren ederraz gozatzen ari ginela heldu zen partidaren bukaera eta bertakoen pozaren lehortzea. Hamar bat minutuko tartean joan ziren jokalarien viscak eta bere horretan utzi nituen. Autoaren irratiak salatu zidan espainiarren herra. “Ez dago eskubiderik” zioten esatariek elkar berotuz. Katalanez mintzatu

Visca Catalunya

omen zitzaien zaleei, Kataluniatik at katalana ulertzen ez duten barçazale andanari irain eginez. Izan ere, Barça

Katalunia baino gehiago da, zioten, eta jokalariek nazionalismo estu, probintziar eta txokozalez txikiagotu egin dute beren garaipena. Jeloskor eman nintzen. Guretako batzuek holako garaipen baten ondoren euskaraz hitz egingo baligute, lehertu egingo nintzateke, hain ohituak baigauzkate bereak espainieraz gozatzen. Entzun bestela Pasaban tolosar anderearen hitzak hamalagarrena lortu eta. Ez nau berotu bereak eta orain badakit zergatik. Ni ere txokozale izaki noski, erdara pare bat ulertu arren. ■

BERTSO BERRIAK

Martin Ttipia taldea

Arabari jarriak

I

Aurkezpena

Hemendik hara bada uste bat
dabil dinbili-danbala:
askoren ustez Araba omen da
mami gabeko azala.
Estibalizko Ama Birjinak
behingoz anpara gaitzala!
Argi bedi berehala
gauzak ez direla hala,
utik irudi hutsala!
Egia orok daukanez bere
argia eta itzala,
herrialdea ager dezagun
Teleberrian bezala.

II

Eguneko gaia

Puri-purian dago Araba
gertakizunen arloan,
atzerritarrek jarraitzen dute
temati inbasioan:
Hiru bizkaitar ura lapurtzen
ito dira pantanoan,
ta San Adriango zuloan
txapelgorriek gaurkoan
makro-operazioan,
giputz talde bat atzeman dute
pinuen kontrabandoan.
Bejondeigula gure miñoiak
dauzkagulako ondoan.

III

Kirolak

Mercedes jaunak marka hautsi du
langileen jaurtiketan
ta lehen aldiz arnas daiteke
giro puroa Ogetan.
Berri bitxi bat ere badugu
Foru Aldundiko hormetan:
trepak izerdi patsetan,
9 A plusetan,
arnesik gabe, benetan!
Ta ehun militar elkartu dira
Gorbeialdeko maldetan.
Merezia du bere lekua
Arabak olinpiadetan.



XDZ

IV

Eguraldia

Laudion euria izango dute
Bizkaiko modu berean,
Bastidan eta Lagranen aldiz
lasai ibili golfear,
Abiadura handiko haizeak
Aramayona aldean,
goi tentsioa airean,
arabar mendialdean
nahiz lautada barrenean.
Eguraldirik ez du egingo
Trebiñuko lurraldean,
ta jakina da, beti bezala,
jertsea izan aldean.


V

Azken ordukoak

Azken berri bat pinganillotik,
jarri dezagun arreta...
E gripearen pandemiarekin
Landatxo dago beteta
Euskararekin kutsatutako
jende asko dago eta,
eztarrien erretreta
mahats zukuaren dieta
alferrik da errezeta.
Euskal sukarra hedatu asmoz
egin dute txapelketa,
kantxa xume bat bihurtu dute
arabar bertsoen BEC-a.

2010eko Arabako Txapelketaren barruan, lehen aldiz egin den kuadrila arteko bertso paper sariketako sorta irabazlea.

DOINUA: "Gregario edo laguntzaile naiz".



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Literatura

Gurutz Sarasola

‘Lotsati’-ren ankea berreskuratu da

Maiteari jaten ematearren, hanka ebakitzeko prest zegoela zioen Gurutz Sarasola *Lotsati* poeta itsasondoarrak olerki batean. 1936an hil zenetik, bere obra oharkabeen pasa da, eta heriotzaren ondoren urte luzetako isiltasunak jarraitu dio. Orain, jaio zenetik 95 urte igaro direnean, liburu bat argitaratuko du Alvaro Rabellik Sarasolaren bizitzaz eta obraz, eta familiak bere jaioterrian omendu du.

LANDER MUÑAGORRI



36ko Gerraren aurreko euskal poeten artean ezkutuan egon da Gurutz Sarasola *Lotsati*ren izena urte askoan. Gazte hil zen, bere buruaz beste eginda, eta familiak, errepresio frankistaren beldur, idatzi zituen poemetako asko erre zituen.

EZ ESKEKARIK, ezta heriotza tragikoari buruzko albisterik ere. *Lotsati* poetaren suizidioa 1936ko agerkarietatik kanpo geratu zen. 20 urte eskas besterik ez zituela, bere burua trenbidera bota zuen. Olerki liburu bat argitaratzeko, haren obraren zati bat egunkarietan ezagutzera emana zuen ordurako. Gero eta sona handiagoa lortzen ari zen Gurutz Sarasola, *Lotsati* ezizenaren atzean ezkututzen zen idazlea. Bat-bateko heriotzari isiltasunak jarraitu zion, ordea. Ia gaurdaino iraun duen isiltasuna.

Poetaren ibilbidea eta heriotza zalantzez beterik dago, bere obra ez delako osotasunean ezagutzen. Alvaro Rabelli literatura iker-tzailea da, eta udazken partean poetaren inguruko liburu biografikoa plazaratuko du, *Ilunpetik argira* (Itsasondoko Udala) izenburupean. “Orain baliagarria izan daitekeen idazle bat berreskuratu da”, dioenez.

Abertzaletasuna sehaskatik

1936ko martxoan egin zuen Gurutz Sarasolak bere buruaz beste, 36ko Gerra piztu baino hilabete batzuk lehenago. Estatu kolpearekin batera, *Lotsati*ren urrats gehienak ezabatu egin ziren, Sarasolatar sendiak bere lan guztiak sutan erre baitzituen.

Itsasondoko arbel meategi enpresa baten jabe zen Sarasola sendia. Mundu osoan saltzen zen Itsasondoko ustiatutako produktua. 36ko Gerra hasi zenean, aberastasun horiek guztiak babesteko premian zegoen familia.



Ezkerrean Kelmen Sarasola, Gurutzen anaia, poetari egindako omenaldian. Eskuinean Alvaro Rabelli, *Lotsatiri* buruzko ikerketaren egilea. Behean berriz, poeta, argazki zahar batean.



Horregatik, abertzaletasunarekin zerikusia izan zezakeen edozein zantzu ezabatu zuten, *Lotsatiren* olerkiak horien artean. Testu horietan askotan erakusten zuen idazleak Euskal Herriarekiko eta euskararekiko zuen atxikimendua. *El Día* egunkarian argitaratutako *Jetxi Sabiñ lurrera* olerkiaren ahapaldia horren adibide da.

“¡Ai...! ¡Sabiñ! ¡Sabiñ!
¡Ai! Berriz sortuko baziñake...
¡Sortuko baziñake berriz!
Aberriari ondo etorriko litzayoke
Sortuko baziñake berriz”.

Gerra hasierako giro mikaztuan, poesia lan guztiak erretzea erabaki zuten Sarasolatarrek, Gurutzen liburutegi pertsonalarekin batera.

Lotsatiren obra desagerrarazi egin zuten, baina familiaren iragan abertzalea ezabaezina zen.

Jose Manuel Sarasola, Gurutzen aita, Itsasondoko alkate izan zen 1931 eta 1936 urteen artean. Agintaritzara iritsi bezain laster, Jose Manuel buru zuen udal gobernuak autodeterminazio eskubidea aldarrikatu zuen Euskal Herriarentzat estreinakoz. Horregatik, olerkiak sutan erre izanagatik ere, gudarosteko errepresioa eta isunak jasan behar izan zituzten.

Maitasunean, dramatiko

Abertzaletasunari kantatu zion *Lotsatik*, baina gai horren inguruan garaiko olerkigintzari ez zion ezer berririk eskaini. Maitasuna hizpide hartzen zuenean, orduan bai, jarrera berria eman zion euskal literaturari. “Lizardik edo Lauaxetak maitasun kontuak dramatismoz jorratzen zituzten, baina nolabait itxura egiten zuten. *Lotsatik* ez, berak zioena sentitu egiten zuen” dio Alvaro Rabellik. Barne mina ateratzeko idazten zuen, eta bere adierazpena benetakoa zela iruditzen zaio *Ilunpetik argira* liburuaren egileari.

Amodioarekiko ezintasuna gero eta nabarmenagoa zen haren idatzietan. Sei hilabetetan argitaratu zituen bere lanetan –egun ezagutzen ditugun bakarrak–, garapena nabaritu daiteke. Gero eta abailduago agertzen zen poeta itsasondorra, depresioak jota, antza. Bere buruaz beste egin aurreko egunetan ere hala sentitzen omen zen *Lotsati*. *El Día* egunkarian plazaratu zuen azken olerkian –*Ankea ebakiko nuke*– ezintasun hori nabaria da:

“Basamortuan
Arkituko baziñake,
Gosez ill bearrean,
Janik gabe,
Ta ni zure aldamenean
Egongo banintzake...
Aizkorea artuko nuke,
Ankea ebakiko nuke...
Eta jana emango nizuke.
¡Orrela biziko baziñake
Asko poztuko nintzake!”

Ahantzuratik ihes egiten

Lotsatik jendartera saltoa orain gutxi egin baldin badu ere, 1990eko hamarkadan berpiztu zen poeta itsasondoarraren inguruko arreta. Artikulu bakan batzuk atera ziren bere obra eta bizitzaren inguruan, baina benetako loraldia 2004an etorri zen, Alvaro Rabelli literatura ikertzailearen ustez. Urte hartan Xabier Mendigurenek *Arbelaren gainean* (Elkar) liburua plazaratu zuen, olerkaria aipatuz. Liburuak oihartzun dezente lortu, eta berarekin *Lotsatiren* izena zabaldu zen. Hala ere, Sarasola sendia ez zen sobera gustura geratu idazle beasaindarraren lanarekin, “errealitatetik kanpo zegoen istorioa kontatu zuen. Karikatura bat egin zuten Gurutzen inguruan” dio Gurutz Olaskoagak, poetaren ilobak. Iñaki Seguiolak *Ostiela!* aldizkarian plazaratutako beste

artikulu batek ere ez zuen Sarasolatarrenean begirune handirik jaso. Horregatik besteak beste, Sarasolarrak idazleari buruzko ikerketa egiteko eskatu zioten Alvaro Rabelliri. “Lan horiengatik agian geratu zitzaigun subkontzientean egia kontatzeko beharra” dio Olaskoagak. Eta enkargu horren fruitu izango da udazken partean argitaratuko den *Ilunpetik argira* liburu biografikoa.

Poetaren inguruan sortu den interes horrek familia harritu du, eta horregatik haren figura berreskuratzeke ekimenekin bat egin du. Hala, pasa den maiatzaren 2an, *Lotsati* jaio zeneko 95. urteurrena aitzakia hartuta, plaka bi jarri zituzten hilerrian eta idazlearen jaiotetxean. Urte luzetako ahantzuraren ondoren, poeta pixkanaka argitara irteten hasi da.

Heriotza dramatikoak justifikatzeko, ezamodia eta maitearen galera askotan errepikatutako arrazoiak dira. Hipotesi hori erabat bazertu gabe, Rabellik ez du uste maitasuna suizidioaren atzean dagoenik. “Mina zuelako idazten bazuen ere, gehiago idazteak areago sumintzen bazuen ere, bere barnean minen bat zuela garbi ikusten da”. Literatura ikertzaileak, halere, garbi ikusten du *Lotsatik* idazten zuena sentitu egiten zuela, eta horretarako bere heriotza hartzen du argudioztat.

25 testutako garapena

Idatzi gutxi argitaratu zituen, baina molde ezberdinak landu zituen olerki eskas horietan. Koldo Izagirrek proposatutako ideia da honakoa, Rabellik bere egin duena: eduki aldetik, baikortasunetik ezkortasunera igaro zen, ironiatik pasata. “Gorabehera handiko pertsona zela ikus dezakegu alde horretatik” dio Rabellik. Idazkera aldetik bestalde, euskara garbizalea, sabinista zerabilen hasieran, eta hizkera herrikoiarekin amaitu zuen. Bertso kopuru gutxiagoko olerkiak idatzi zituen azken aldian, adierazpenak hitz gutxiagorekin eta zehatzago eginez. Sei hilabetetan halako bilakaera eman izana, hori da literatura ikertzaileari deigarri egin zaion puntueta bat.

25 olerki, *Lotsatiren* beste lanik ez da eza gutzen. Bilakaera hori beraz, argitaratu zituen testuetan ikus daiteke soilik. Olerki batetik bestera aldaketa ikus daiteke, eta horregatik ere berezia da bere ibilbidea.

Lotsatiren heriotza dramatikoak justifikatzeko ezamodia eta maitearen galera askotan errepikatutako arrazoiak dira. Hipotesia baztertu gabe, Alvaro Rabellik ez du uste maitasuna suizidioaren atzean dagoenik

Aitzol bizilagun eta sustatzailea

Itsasondarra jaiotzez, 1929an donostiartu zen familia guztiarekin. Plaza del Centenario-ko etxebizitzan Jose Ariztimuño *Aitzol* idazlearen bizilagunak izan ziren, eta harreman estua lortu zuten. Alvaro Rabellik azpimarratzen duenez, “hurbiltasun hau gakoa izan liteke, gerora Gurutz gazteak literaturan egin zituen urratsak azaltzeko”. Literatura ikertzailearen ustez, zalantzak zalantza, *Aitzolek* garrantzi handia izan zuen *Lotsatiren* olerkiak argitaratzeko. Une hartan euskal literaturan pisu handia zeukan Ariztimuño idazle eta euskaltzale tolosarrak. Gainera, *El Dia* egunkariko zuzendaria zen, *Lotsati* bertan testuak argitaratzen hasi zenean.

Idazle apala zen, xumea eta oraindik sona handirik ez zuena. Pixkanaka izena hartzen ari zen halere, eta horren adibide egunkarietan laster argitaratu behar zuen liburuaren iragarkiak agertu izana. Idazle handien itzalean zegoen dena den, beste asko bezala. “Garai hartako idazle handiak askotan eurak bakarrik aritzen zirela esan ohi da gaur egun, ez zegoela atzeko sare antzeko bat. Baina ez da horrela, *Lotsatirena* bezalako adibide asko baitaude”, Rabelliren hitzetan.

Gaztea zen *Lotsati* hil zenean, idazle hasiberria. Gogotsu eta ekimentsu zihardu lan horretan, eta “idaztea oso serio hartzen zuen”. Baina ibilbidearen hasieran topatu zuen helmuga, uste baino lehen. Rabellik dioen bezala, heriotza poetiko horren ondoren egundaino iritsi zaigun “heroi erdi erromantiko bat” sortu da. ■

Ikus-entzunezkoak

Eguzki Bideoak

«Erantzun bat eragin nahi dugu, historia desberdinak kontatuz»

Eguzki Bideoak Iruñeko proiektu interesgarria da, garai hartako Eguzki Irrati librearen inguruan 1994. urtean sortutakoa. Kontrainformazio mugimendua ikus-entzunezkoetara eramateko beharra ikusi zuten zenbait kidek eta horrela sortu zuten nazioartean bere lekua egitera iritsi den kolektibo berritzaile hau. Beren lokalean bildu gara Aitor, Jara eta Nerearekin.

LANDER ARBELAITZ

Zer egiten zenuten hasieran?

Emanaldiak eta proiektzioak egiteaz ardura-zen kolektiboa garai hartan, eta lehen dokumentala 1998an argitaratu genuen, 78ko San Ferminei buruz: *Oroitarrria*. Oso murgilduta zegoen kolektiboa hiriak zuen dinamikan. 2000. urtean gure jarduerak aldatu egin ziren, Internet agertu baitzen gure bizitzetan. Hor ikusentzunezko aktibismoan hasi ginen, *Indymedia Euskal Herria*-ren sorreran ibili ginen, Nafarroako zenbait gatazkatan parte hartzen hasi ginen –Itotzeko urtegiaren azken herrien hustuketan adibidez—. Urte horietatik aurrera bideoak askoz ere modu aberatsagoan ekoizteari ekin genion. Gaztetxearen hustuketa, *Hustearen kronika*, *Donde se cuece la guerra*, ondoren *Jaizkibel bizirik...* horiek izan ziren hastapenak. Eta 2006. urtetik aurrera egin ditugu ekoizpen gehienak.

Bat-batean dokumental ekoizleak biderkatu egin ziren eta material asko heltzen hasi zitzaigun, jendeak ez baitaki zer egin landutako material horrekin. Jendeak dokumentalak bidaltzen zizkigun eta ohartu ginen Espainiar Estatuan ere ez zegoela halako materialak zabaltzeaz arduratzen zen banatzaileak. Liburugintzan baze- goen banatzaile alternatiboen sarea, baina ikus-entzunezkoetan ez.

2004tik aurrera Eguzki Kolektiboan bi pertsona liberatzea erabaki genuen eta hor lana ikaragarri areagotu zen. Hor pentsatu genuen, zergatik ez antolatu banatzaile bat? 2006ko abenduan banatzailea montatu eta urte hartako Durangoko Azokan egin genuen aurkezpen ofiziala.

Nola zaudete antolatuta egun?

Eguzki Kolektiboaren parte gara, nahiz eta zati honek bere berezitasunak izan. Antolakuntzak alde enpresarial bat badu, baina beti ere autonomia politikoa duena. Lau pertsona ari gara banaketan lanean egun. Lau hilero titulu batzuk hautatu eta Euskal Herrian banatzen ditugu, taberna, zentro sozial eta gustuko liburu dendetan. Euskal herrian hiru hilero 3-4 material hautatu eta era masiboan banatzen ditugu. Espainiar Estatuan berriz, katalogo osoa banatzen dugu.

Zein da zuen filosofia?

Normalean komunikazio diskurtso ofizialetan oihartzunik ez duten historiak kontatuz erantzun bat probokatu nahi dugu. Gure inguruarekin kritikoak izan daitezkeen ahots eta pentsamendu autonomoak bultzatzeko tresna izan nahi dugu. Bide honetan autore txiki eta kolektiboek aukera eman eta bide horretan euskaraz gero eta lan txukun gehiago izan ditzagun ahalegintzen gara. Eduki kritiko horiek azaleratzea da ardatza.

Eguzki Bideoak kolektiboaren azken urteetako lanak emandako zenbait emaitza dira ezkerreko irudietako azalak.



Dokumentalak ikusgai ARGIA.com-en

Bi astean behin euskarazko dokumental berri bat gehitzen joango gara www.argia.com/multimedia/dokumentalak helbidean. Dokumentalen baldintza bakarra euskaraz edo euskarazko azpitituluduna izatea da. Honela, euskarazko lan luzeen biltegi eta euskarazko bideo dokumentalez gozatu nahi dutenen erreferentziak atari bilakatzea da helburua.

Oraingoz hiru dokumental daude ikusgai: *Iparraldea XXI*, *To Shoot an Elephant* eta *Ni Basatia Naiz*.

Hauek izango dira hurrengoak:

- *13M* (Martxoaren 11n Madrilgo atentatuaren bihar-munean, Iruñean Angel Berrueta okinaren hilketaz, Eguzki Bideoak)

- *Ni Basatia Naiz* (Kandido Uranga 1855eko AEBe-tako Seattle Buruzagi Handiaren “lurraren zati gara” mezua irakurtzen, Gipuzkoako Foru Aldundia)

- *Su eta lore artean* (Estonian 2007an izandako liskarren testuinguruan bertako errusiarren integrazioa jorratzen du, Lander Arbelaiz eta Rob van Elburg)

- *Itsasoaren Alaba* (GALe hildako Mikel Goikoetxea Txapela-ren alabak bere aita izan zenari buruz egin-dako dokumentala, Josu Martinez, IPES).

ARGIA.com helbidean topatuko dituzun dokumentaletan Eguzki Bideoak kolektiboak egindakoak nabarmendu nahi ditugu, euren katalogoan euskaraz edo euskarazko azpitituluak dituzten lan guztiak ARGIA.com atarian sareratzen joango baitira.

Aitzindariak zarete Creative Commons lizentzien erabileran.

Betidanik teknologia eta sarearekin ikuspuntu kritikoa izan dugu. Interneten zabaltzeak, teknologiaren miniaturizazioak eta edukien digitalizazioak bultzatuta komunikazio paradigma berri hau sortu zenean, software askearen diskurtsoa indartsu sartu zen. Geroz eta sare zabalagoa izateari ematen zaio garrantzia.

Gure materialaren defentsa eta zabalkunderako logikoena lizentzia libreak erabiltzea dela uste dugu. Hasieratik ari gara horrela, indar handiagoa ematen dio materialari, edukiaz gain formak ere garrantzia duelako dokumentalean.

Zuen estiloarekin bat dator euskarazko azpitituluak jartzea.

Historia eta autore txikiei lekua egiten diegun bezala, hizkuntza txikiei ere lekua ireki nahi diegulako. Hizkuntza bat aberasteko hizkuntza horretan lan txukunak eskaini behar dira. Nafarroan areago, erabaki politiko garrantzitsua da, eta hasieratik ekin genion horri.

Garrantzitsua euskaraz material ona ego-ta da, horrek ziurtatuko du hizkuntzaren etorkizuna. Ez diru laguntzek, ez beste ezerk.

To Shoot an Elephant gauza handia izan da, mundu osora egin duzue salto...

Gure proiektuan inflexio puntua izan da. Alberto Arce ezagutzen genuen, Gazan zela berarekin harremanetan jarri ginen, eta Palestinatik itzultzean ekoizpena gurekin egitea eskaini genion. Atea ireki digu nazioartera, IDFA festibalean aurkeztu zen –Europako dokumental festibalik garrantzitsuena da–, eta baita Xixongo festibalean ere. *Global screening*-a ere egin genuen, dokumentala mundu osoko leku ezberdinetan egun berean ikusteko.

Pentsatu ere ezin genitzakeen hamaika bide jorratu dugu. Orain beste pauso batean gaude. Batez ere, proiektua ikusgarri egiten lagundu digu. Filmaren kariatara jende asko jarri da gurekin harremanetan. Deskubritu dugu Copyright-aren defentsa sutsua egiten duen mundu honetan ere, zure diskurtso eta proiektuarekin aurrera gogor egiten baduzu, bidea egin daitekeela. ■

Yorick Liburudendan edo
www.libreriayorick.com
eskura dezakezu

Argitaletxearen
azken argitalpena

Baba zango-horiak
Catherine Zambon
(Itzulpena Txomin Heguy)

argitaletxea
Artezblai



San Frantzisko, 15ren parean, 48003 - Bilbao / Tel: 944 795 287 / www.libreriayorick.com / info@libreriayorick.com

Liburuak

KRITIKA

Aldaira urdinak.
Edu Zelaieta.
Alberdania.
100 orrialde. 13,50 euro.

Helduen literatura
Igor Estankona



Aldakuntza

2004ko *Mugaldekoak* poemategitik hona aldaketa sumatzen da Edu Zelaietaren tonuan –gogoetatsua–, eredueta –klasikoa– eta mezuan –intimoa– da *Aldaira urdinak*–, baina orduko liburu hari buruz esan genuen lez oraingoan ere esan dezakegu gasteiztarak poemetan emeki barneratzen duela irakurlea, itsutu barik, berdatu barik.

Orduan lez oraingoan ere, aldarria eta oihumina erabili beharrean, Zelaetak solasaldi xamur bihurtzen ditu bere betiko obsesioak: aberria, muga, banaketa, amodioa, migrazioak... eta denen gairi, aldaira berriak, aldantzak, mudantzak.

Idazleak dio dagoeneko ez dela toki berean bizi, bere sorleku den Gasteizko Alde Zaharretik hiriaren kanpoaldeko Salburua auzo berrira egin berria dutela aldaira: “Baina mudantza hori ez dut mudantza bakarra. Ari naiz gaztarotik gauzarik behinenak biltzen. Ari naiz dudak eta beldurak esperantzarekin nahasten, iragana geroarekin uztartzen”. Heldutasunaren eta atzera begirakoen poemategi honetan edertasunean eta umorean pausatzen da idazlea, emeki, bizitza deskribatzerakoan. Atzekoz aurrera poema, esate baterako, eritmoduna, bisuala, hunkigarria da. Eta ustekabeko satiraz bukatzen da, oraindik sakonago eroanez, kontraesanarekin, irakurlea: “Eta bizitzak lardaskatuta nauka une horretan, lurraren magalean jaio./ Atzekoz aurrera, ehorzteko gastu ergelik gabe”.

Beste poema askok, oster, berriak Zelaietaren diskurtsoan, ez naute asebate. *Inventario likidoak* ataleko gehienak –hala nola *Libanoko istorioa*– ez dira efektiboak, narrazio erdi-magikoaren muga dabilta, inora iristeke.

Aipatutako bilaketa horri esker, egiari zor, *Marmoken kontua da denbora* eta halakoak aurkitu ditugu; poema handinahiak eta era berean arinak, errealismo kritikodunak, hitzen azpian zer edo zer gordetzen dutenak.

Itxuraz ezdeusa den elea pisua irabaziz eta ekintza poetiko bihurtuz doa pitinka. Menturaz poesiaren azpiko korronteen eta isiltasunaren –elipsiaren– beraren lanketan sakontzea falta zaio, isiltasun horietatik sor daitezen beste hitz batzuk, eta beste isiltasun batzuk, eta beste hitz batzuk... Faltza zaio, zentzu horretan, tenple apur bat gehiago, bere kontakizun txikietatik abiatuz zerbait sublimeagoa lortu ahal izateko. Asmatu duen orduan gozatu egin dugu, baina Edu Zelaietari, uneka, materiala agortu egin zaio *Aldaira urdinak* honetan. ■

Krisiaren lezioak ‘Hemen’aldizkarian

Hemen erlijio gogoetarako aldizkaria da, baina horregatik ez dituzte alboan uzten bestelako gaiak ere. Azkeneko zenbakian, 25.ean, krisi ekonomikoa hartu dute gai nagusi. Horretaz idatzi dute Mari Carmen Gallastegui –krisiaren ezaugarriak, zifrak eta hartutako neurriak aztertuz–, Joseba Azkarraga Etxagibeak –kooperatiben munduko begirada eskaini



Hemen 25.
Batzuen artean.
Frontera.
103 orrialde.
7,95 euro.

du–, Sebas Gartzia Trujillok –ikusuntu kristautik–, Joseba Barandiaranek –Euskal Herriko ekonomia nabarmenduz–, Manuel Egigurenek –hirugarren munduko ikuspegiarekin– eta Mikel Arteagak –baserriaren egoerari arreta berezia eskainiz–. Gainera *Leku-koak* sailean hainbat herritarri gaiak galde egin diete. ■

Matilderen aurpegiko ubeldurak

Ez da samurra Antton Kazabonek azken libururako hautatu duen gaia: Matilde erietxean dago, senarraren jipoia jaso ostean arrastoak sendatzen. Enara izeneko alabak egiten dizkion bisitak dira kontakizunaren hari nagusia. Alabak, liburuak aurrera egin ahal, gurasoen harremanari buruz gogoetatuko du, bere arazoak konpontzen saiatzearekin batera. Bide horretan, biolentzia matxistaz gain, bestelako gaiak ere azalduko zaizkio irakurleari: alkoholismoa, bikote-harremanak, familia puskatuetan seme-alabek bizitzen dituzten egoerak... Liburuaren aurkezpenean Kazabonek azaldu zuenez, ez du inolako lezio etikorik eman nahi lan honekin, baina hausnarketarako balio dezala nahi du. ■



Aurpegiko ubeldurak.
Antton Kazabon.
Elkar.
107 orrialde.
10 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Heldu eskutik.
Etxe.
Baga Biga.
Iraupena: 36'08".
11 euro.

Hurbiltasuna erritmo biziagoarekin

BERRIZKO musikari gazteak beste pauso bat eman du, taldeagoa bihurtu du proiektua, eta pop-rockaren eremuan lanean jarraitzen badu ere, abestietan gitarrek eta erritmoak indarra hartzen dihardute. Bertako musika du Etxek gustuko eta konposizioetan antzematen da. Horra hor, Gari eta Rafa Ruedaren ahots tinbreak, Eñaut Elorrietaren melodia hauskorak baita Eskixuren folk kutsuko rocka ere. Baina Green Day-en punk-popa eta

hard-rockaren distira ere badago, Andoni gitarra jotzaile berriaren ahaleginari esker. Hitzetan hurbilekoa dugu Etxe eta sentimendu eta gertaeren gainekoak dira idatzitakoak. Horien artean, nabarmentzekoak dira galdutako anaiari eskainitako *Bakarrik sentitzen naiz* hunkigarria, Anje Duhalderekin batera abestutako *Lurralde bakarra* eta Laboaren omenezkoa.

www.myspace.com/etxemusika

Etxe

«Oso euskal musika zalea naiz eta horrek eragina du nire kantetan»

Lan hau rockeroagoa da. Abestiei bestelako gorpuzkera eman nahi zenien edo talde izaera gehiago nabarmentzea?

Hori da bilatzen nuena. Aurreko diskoko kantak zuzenean jotzean "lasaiegia" zirela nabaritzen nuen. Orduan erabaki nuen hurrengo diskoa rockeroagoa izango zela. Gainera, Andoni gitarra jotzaile berriarekin gitarrek garrantzia handiagoa hartu dute eta eragina izan du kantak lantzerakoan.

Abesteko eran eta melodian 90eko hamarkadako hainbat musikari gogora ekartzen dizkidazu. Ados zaude?

Guztiz ados. *Zatoz nirekin* ateratzerakoan askotan konparatu ninduten Garirekin, eta hori plazer handia da. Anaia nagusien eraginez beraien belaunaldiko musika asko entzun dut, eta 90eko hamarkadako musika presente dut: Hertzainak, Zarama, Doctor Deseo... Oso

euskal musika zalea naiz eta horrek eragina du nire kantuetan.

Lurralde bakarra. Nahiz eta askok pentsatu, ez da oso ohikoa halako letrak irakurtzea; ezta ere Anje Duhaldekin beste batzuen diskoetan parte hartzea...

Zuzena izan nahi nuen kanta egiterakoan. Diskoa prestatzen hasi aurretik pentsatuta neukan Iparral-

deari "omenaldi" bat egitea eta hitza idaztean, ederra izango zela Anjerekin abestea. Berari komentatu eta kanta entzun gabe baiezkua eman zidan. Plazer handia izan da niretzat.

Zer behar da "zure bihotzaren konkistatzaile" izateko?

Maitasunari dagokionez aspalditik nago ni konkistatuta, baina zaleek askotan konkistatzen naute. Nire kantuekin identifikatuta sentitzen direnek, kontzertuetan abesten ikusten ditudanek eta nire musikarekin gozatzeko duten konkistatzen naute.

"Gauetako heroiak aterako dira amets harrapatzaileen antzera". Zure kantetan, gazte eta rockzaileen topikoa apurtuz, gauari buruzko erreferentzia gutxi dago...

Egia da eta ez dakit zein den arrazoia. Dena dela, ez dut ezkututzen oso gau eta parranda zalea naizela. ■



Ezpalak

URKO APAOLAZA / JON TORNER

Arabako trikuharriak Kultur Ondare izendatuko dituzte

ARABAKO hainbat bailaratan dauden hamabost trikuharri esanguratsu Kultur Ondare izendatzeko espedientea martxan jarri du Eusko Jaurlaritzak. Trikuharrien egoera kaxkarra ikusita, babes handiagoa eskaintzeko erabakia da honakoa eta trikuharrietan edo inguruan inolako jarduerarik ezingo da egin behin Kultur Ondare izendatu eta gero. Besteak beste, Sorginetxe (Agurain, argazkian), La Hechicera (Elvillar) edo El Sotillo (Laguardia) trikuharri ezagunak babestuko dira; guztiek 6.000 eta 4.000 urte arteko multzo megalitiko homogenea osatzen dute.



TERRAE ANTIQUAE

Gipuzkoako museoak webgune batean bilduta


GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK herrialde horretako museo eta interpretazio zentrozen inguruko webgunea zabaldu du: www.gipuzkoakomuseoak.net. Atari horrek museoaren inguruko informazioa eta herritarrek parte hartzeko tresnak jasotzen ditu. Modu berean, zentro guztien arteko koordinaziorako gune pribatu bat ere badu webguneak.

Bilboko Alondegiak atek zabaldu ditu, hamar urteko eraberritze lanen ostean. Philippe Stack frantziarrak diseinaturiko aisialdi eta kultur zentroa eraikitzeko 75 milioi euroko aurrekontua bideratu du Bilboko Udalak. Pasa den astean erakustaretoak eta auditoriuma inauguratu zituzten; hilaren 27an Ricardo Perez sukaldariaren jatetxea irekiko dute, 28an Golem kateko zinema aretoak, ekainaren 1ean igerilekuak eta gimnasioa, eta ekainaren 15ean liburutegia.

Txuspo Poyo artista nafarrak hiru dimentsioko animazioak, eskulturak eta marrazkiak harremanetan jarri ditu Gasteizko Artium museoan. Nazio Batuen Erakundearen Manhattango eraikina hartu du abiapuntutzat.

Nestor Basterretxea eskultore bermeotarra omendu dute Baionako Euskal Museoak, Bonnat museoeko Carré aretoak eta Herriko Etxeak. Batetik, bi erakusketa izango dira ikusgai museotan abuztuaren 22ra arte. Bestetik, ekainaren 5ean Basterretxearen obraren inguruko egun osoko egitaraua (<http://agenda.bayonne.fr>) prestatu dute Baionako Herriko Etxeko areto nagusian, Eusko Ikaskuntzaren babesarekin.

Ane Piratak enkargu bat eman dio Patakoni: Pirritx, Porrotx, Marimotots eta tripulazioko gai-nontzeko kideak marinela eta pirata bihurtu behar ditu lehenbailehen. Hori da Mitxel Muruak idatzi duen *Pirata ausartak* (Elkar) liburuaren abiapuntua. Ilustrazioak Julen Tokerok egin ditu.



● **Gorka Jakobe Palazio EHUKo irakasleak Deian:** «Interneten denak ez du doakoa izan behar, baina jakintzak bai. Aspaldi legoke minbizia gaituta medikuntza ezagutzak libreak izango balira. Zerbitzuei eman behar zaie garrantzia, ez *royalty* eta patenteei. Azken batean zeure izena agertuko da libre sortutako edozertan eta horrek beste maila bat emango dizu. Horrela ere lortzen dira irabaziak. (...) Komunikazio tresna bihurtu da internet: gero eta berriemaile gehiago daude, publizitatea ere sakabanatuago... hedabide eskergen aroa amaitu egin da. Benetako demokrazia sortzen ari da interneten, edonork sor dezakeelako bere komunikabidea, bloga, wikia...».

● **Javi Nevado Bilboko ANTI- liburutegiko bazkideak Nontzeberri webgunean :** «Esan ohi den bezala, guk beste liga batean jokatzeko dugu. Gure eguneroko arazoak ez datoz merkatal gune handi horiekin publikoak lortzeko lehiatik. ANTI- dendarak datorren jendeak badaki zerbaite ezberdina garelako. Uste dugu gure publikoak badakiela zertan datorren, merkatal gune handietan aurkitzen ez denaren bila, hain zuzen ere: espezializazioa, tratua pertsonalizatua, giro erlaxatuagoa, programazio alternatiboko eskaintza eta egiazkotasuna. (...) Zenbat eta gehiago espezializatu, orduan eta gehiago saltzen dugu». [Interneten: www.anti-web.com].



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

JON TORNER

'Fausto' obra tragikoa antzeztu nahi du deabruak

Tabú.

Rubén Pellejero & Jorge Zentner.

Glénat (2000).

70 orrialde, zuri-beltzean.



JORGE ZENTNER idazle eta marrazkilarri argentinarrek herrialdetik ihes egin behar izan zuen diktadura garaian, 1977an, 24 urte zituela. Frantzia eta Israelen ibili ostean, Bartzelona ondoko Sitges herrian geratu zen. Han ezagutu zuen Ruben Pellejero marrazkilarri kataluniarra. Euren elkarlanaren aurreneko fruituak *Cimoc* aldizkariak argitaratu zituen. *Monsieur Griffaton-en* memoriak izeneko komikiek hasi zuten bi egileen arteko harremana.



1990. hamarkada hasieran Zentner-ek Tolosa (Akitania) hartu zuen bizileku, baina Pellejeroarekin lanean jarraitu zuen. 2000. urtean plazaratu zuten esku artean dugun komikia: *Tabú* (Glénat). 2001eko Bartzelonako Komiki Azokan gidoi onenarentzako saria lortu zuen komiki poliziako horrek.

Matt Rivière polizia inspektoreak hiltzaile boteretsua du arerio: deabrua. Mefistofeles infernuko printzearen arrebari euren arima saldu diote zenbait lagunek. Jada ez dira euren bizitzaren jabe. Badakite zer egiten ari diren, baina zergatiak ez ditu inork ezagutzen, ezta beraiek ere. Soilik dakite bat batean alemanez mintzatzeko gai bilakatzen direla, eta ezagutzen ez duten Johann Wolfgang von Goethe idazlearen *Fausto* obraren pasarteak erreizitu ditzaketela. Baita edonor hil dezaketela ere.

Abiapuntuak eroa dirudi, baina ohiko istorio beltza da, elkar ikusterik ez daukaten poliziekin, maitale eta konfidenteekin, taberna ilunekin... Zuri-beltzeko argi-ilunek markatzen dute narrazioaren erritmoa. Pellejero-renak trazo garbiko ilustrazioak dira, anabasarik gabekoak, baina uneoro jotzen du irakurlearen intuizioarekin. Beltzuneak nagusi direnean, zuri apurrarekin gai da eszena oso bat deskribatzeko, ilunpean geratzen den hori agerian lagatzeko. ■





Dive Tarpoon urpekaritza





Kirol portua, A7 lokala
48992 GETXO (Bizkaia)
Tel / Faxe: 94 4912577
divetarpoon@euskalnet.net
www.divetarpoon.com



Ihesi

Testua eta argazkiak:

ASIER AGIRRESAROBÉ · MUSKILDA TELLABIDE

Euskal Herria ezagutuz:
Ituren (Nafarroa)



Eraikin galduen bila Malerrekaren gainetik

Urumearen goi arroa, Bortziriak eta Malerrekaren arteko mendi-multzoaren gailur esanguratsu eta aldi berean ederrenetakoa da Mendaur. Iturendik abiatuta, gailurra menperatzen duen Trinitatearen ermita izango dugu lehen helburua. Jarraian, Makilipurdin edukiko dugu mugaria. Han, Orzorrotz gaztelua eraiki zuten duela zortzi bat gizaldi, eta bertaraino igoko gara gazteluaren harriek ea hor dirauten ikusteko.





Goiko argazkian, Borda urtegirako igoera.
Azpian, Bustizko lepota bidean.

MENDAURRERA IGOTZEKO abiapunturik ohikoena Aurtitz auzoa izan arren, Ituren eta auzo horren erdibidean dagoen San Martin eliza hautatu dugu ibilbidearen abiagunetzat. Hala, pinturaz markaturiko ibilbidea jarraitu beharrean, harripilak izango dituzue bidelagun, bordaz borda, Mendaurreko magalak babesten duen urtegiraino igozterako orduan.

San Martin elizatik (230 m), eskuinetik edo ezkerretik, kanposantu atzeko bidera irten behar duzue, eta mazelan gora hainbat bihurgune eginez igotzen den pistari eutsi. Gorabidean, ermita traza handirik igartzen ez zaion San Joakin utziko duzue lehenik, ezkerrean, eta beste borda bat, aurrerago eskuinean. Lehen bihurgune itxian, nahi izanez gero, lasterbidea hartu dezakezue, eta pistarekin berriro bat egitean, bizkarrean gora zuzenean igotzen den bigarren bat. Garai bateko bide zaharraren arrastoak segika edo emeki-emeki, pista zabalean gora bidegurutze garrantzitsu batera iritsiko zarete (500 m).

Pista erabat utzi eta bide zaharri heldu behar diozue hor, nahi-

taez. Baina adi ibili! Beherago gertatzen den borda bateraino iristen den bidea ez hartu. Gorantz abiatzen denetik jo.

Bizkarrera zuzenduko da lehenik bidea, eta bizkarrean gora zuzenean igo, ondoren, gero eta aurrerago are eta nabarmenago. Urrunean, txiki-txiki oraindik, tontorreko ermita zuria bistan duzuela, ezkerretara egin behar duzue jarraian (620 m), eta mendia inguratuz urtegiraino eramango zaituzten sakanean barneratu. Bide zahar polit eta jatorra, amildegia ezkerrean duela doa gora, gehientsuenak aurrerago dauden bordatik bordara.

Urtegitik Trinitatera


Haitz konglomeratu puska bitxiak eta aurrerago pagadiak, urtegiaren ondora iritsi zaretela adieraziko dizute (750 m). Hor behean ikusi ahalko duzue argindar zentrala hornitzen duen urtegia, sasoiaren arabera goraino beteta edo ia urik gabe. Pagoen gerizpean zehar aurrera jarraitu, erreka-zulo bat zeharkatu eta mendi-pista batera irtingo zarete. Behera egin hor,

borda luze eta bidegurutze bateraino (740 m). Mendaurreko tontorrak lotzen dituen Buztizko lepota igotzen den bidea topatuko duzue, nabarmena eta garbia, oso erabilia baita. Horixe hartu, beraz. Laster utziko duzue urtegia behean, gaindituko dituzue azken pagoak, eta ikuspegia izugarri zabalduko zaizue belardi berdeen etorrerarekin bat. Orduan hartuko diozue ibilbideari zentzua, orduan ikusiko baitituzue, lehenbizikoz, Ekaitza eta Makilipurdi eta Mutilnako haitz berezia.

Lepo zabal eta belartsura iristen zaretenean, edo iristear zaudetela, borda baten hondarretan (930 m), eskuinera hartu eta berehala egingo duzue bat tontorrera sigi-saga igotzen den zidorrarekin. Malda pikoan gora, astiro-astiro, harkaitz arteko igarobidea den harrizko mailetako eskaileretara iritsiko zarete. Hortik igo, beste isurialde-igaro eta bigarren eskailera tartea gainditzea besterik ez zaizue geratuko tontorreko Trinitatearen ermitara iristeko (1.131 m). Ermita dago batetik, eta hari erantsita aterpea jarraian, lehenaren bar-



Goian, Iturengo eta inguruetako ikuspegi ederra. Lerro hauen ezkerrean, kairn edo harri-pila bidean gidari. Eskuinean, urtegia eta Mendaur mendia, Ekaitza ingurutik ikusita.



nean dioen moduan “1692an egina eta 1963an berritua”. Eraikinaren atzealdean daude postontzi eta gurutzea. Ikusmira lau noranzkoetan da ederra, eta batik bat hegoaldera: Malerrekako herri guztiak txiki ikusten dira, behe-behean; Urumearen goi arroko gailurrak, ekialdean; Baztan-Bidasoa aldeko tontorrak mendebalean, eta aurrez aurre uren banalerroa osatzen duen gailur-lerro osoa. Harago, urrutian, primeran ikusten dira nafar Pirinioak ere. Badakizue hortaz, jaso burua eta begiratu luze bat eman, merezi du eta. Esanak esan, ez ote garen alperrik ari iruditzen zaigu, tontorreko oroigarrian idatzirik dagoena irakurrita: “Mendizaletasuna bizi dutenek zuk bezalaxe senti-

tzen dute eta ez zaitez ezagutzen ez dutenei azaltzen saiatu, ez baitzaituzte ulertuko”.

Ekaitza eta Makilipurdirantz

Igotako bide beretik egin behar duzue behera, Buztizko leporaino (930 m). Besteak beste, mugarría eta zutarri itzela dituzue hor. Mendiederreko tontorrera ere igo zaitzekete, baina Ekaitzarainoko bide zatia erraza eta desnibel handirik gabekoa izanagatik, ibiltzeko tarte luze samarra da, eta beraz, hobe ipar-ekialdera, mazela erditik tontorra inguratuz doan zidorrari heldu eta aurrera egitea.

Luze gabe, mendi bizkar etzane-
ra irtengo zarete (980 m). Hortik, betiere ikuspegi zabalekin, jarraitu gainez gain punturik baxuena hartu


arteraino (960 m), eta ekin, ondoren, aurrez aurreko bizkarrean gora Ekaitzako tontorrerainoko (1.047 m) maldari. Bide beretik, metro batzuk egin behar dituzue atzera, eta hegoaldera irteten den mendi adarrean behera jo, malda leunean Makilipurdiraino. Lepo batera iritsiko zarete (845 m), eta zertxobait aurrerago haitzaren oinarriara (835 m). Tartean Zubietako (eskuinean) eta Iturengo (ezkerrean) muga-lerroa jarraitu baduzue behintzat, harrizko bi gurutze topatuko dituzue, bata bestetik aldentuta.

Mendaur bezain garaia ez izan arren, Malerrekako edozein herritatik gora begiratuz gero, beti da nabarmena eta deigarria Makilipurdi. Forma berezia eman dio naturak,

Orzorrotz gaztelua, ganadu lapurrak zelatzeko talaia

Bertakoek haitza Mutilna edo Makilipurdi izenarekin ezagutu arren, testu zaharretan *Orzorrotz* izeneko gaztelua aipatzen da. Nafarroaren eta Gipuzkoaren arteko mugaren zaintza lanak egiteko Goi Erdi Aroan eraiki zituzten gazteluetako bat da. Gipuzkoako lurraldea ebatsita zela, handik etor zitezkeen etsai edo ganadu lapurrak zelatzeko erabiliko zuten soldaduek, ziur asko, talaia.

Iñaki Sagredok *Nafarroa, erreinua defendatu zuten gazteluak* lanean dioenez, XIII. mendean eraiki zuten Orzorrotz, mendearen hasieran beharbada, nahiz eta lehenengo dokumentu idatziak 1298koak direla argitzen duen. Bertan hamar edo hamabost soldadu egoten zela dio, eta garai liskartsuenetarako soldadu kopurua 40ra igotzen zela dioten dokumentuak badi-rela gehitzen du. 1400. urtearen bueltan berreraiki eta Nafarroa konkistatu ondoren desegin zuten, 1522 urtearen inguruan.



Makilipurdi edo Mutilnako tontorrean zegoen Orzorrotz gaztelua.

amildegia iparraldetik eta erabat malkartsua hegoaldeko, harritsua alde guztietatik. Hortz zorrotza benetan. Iritsiezina dirudi, urrutitik behintzat. Mendebaldetik du igoera samurrena, eta handik zuen, antza, gazteluak ere sarbidea. Haitzari begira, beraz, eskuinera eta gora jarraitu eta laster gora egiteko bide posible bakarra aurkituko duzue, ongi markatu gabea baina zailtasun berezirik jarriko ez dizuen. Zertxobait ezkerreko jo eta berriro eskuinera egin ondoren, gainaldera igoaraziko dizue. Ezkerrean duzue tontor nagusia, ordea, eta akaso hara igozteaz izango da koskarik handiena. Hor dagoen zuhaitz bakarraren ondok gaintitu daiteke eragozpen handirik gabe koska, eta hortik maldan gora tontorreraino (890 m).

Gazteluaren arrastoak

Gaínean, gutxi gorabehera hamasei bat metro luze eta hamabi metro zabal den oinarri erabat horizontala topatuko duzue, gizakiak zelaitua, dudarik gabe. Adi begiratu gero, berriz, hego-ekialdeko hegian, harresiak izan zirenean oinarriaren hondarrak aurkituko dituzue: gutxi landutako harriekin osatutako bi ilara, bata bestea baino beherago. Gazteluak bi harresiko babesak izan zuela dirudi. Bestalde, ekialdean, goitik behera bota edo amildutako harritza dago. Bistan denez, gotorlekuaren harresi eta eraikinetako harriak dira. Ez dago besterik, hondarrak esan nahi da, ikuspegia hemen ere zoragarria baita. Burua jaso berriz ere, zabaldu begiak eta gozatu.

Beherakoa zuzenean hegoaldeko malkarrean behera jaitsiz egin dezaitezue. Harritsua izanik, baina, tentuz ibili behar da, heze dagoenean batez ere. Lurrazaleratzen diren harlauza handien arteko pasabideak baliatu eta bata bestearekin lotuz ireki behar duzue bidea. Kontuz! Azken koska jaitsita, garoz estalitako hegietan behera egitea besterik ez duzue, saroi multzo bateraino (550 m). Harritzko itxitura-hormen ondok behera egin Mareneko bordaraino, eta hortik beherako pista segi urteigira igotzen den bidearekin bat egin arte (400 m). Porlanezko bidean behera egin beharko dituzue Aurtitzerainoko azken urratsak. Izan ere, bide zaharrak egon badaude, baina zoritxarrez sasiak jota, erdi galdurik. ■



Euskal Museoa
Miguel de Unamuno plaza 4 • 48005 BILBO
Tel. 94 415 5423
museoa@euskal-museoa.org • www.euskal-museoa.org



ellaURI HOTELA
Altzusta 38, 48144 ZEANURI
+34 946 317 888 | ellaURI.com

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak

ITSAS TXAKURRA BOGATZEKO EKINTZA	PERTSO- NAIAREN ABIZENA KALTE	SALBU	ALUMINIOA EMAKUME IZENA	ERREPIKA- TUZ, DISTI- RATUZ DIHOA	EBAKI SAKONA TXOKOLA- TEZKO BOLA	ZUNTZA BORBO- RREAN
DENDAK EZARTZEKO EREMU ITAUNKETA	BIZKAIKO HERRIA ARABIERAZ MINTZATZEN DENA	BABA MOTA BAT AZPI, BEHE	GUZTIEI DAGOKIENA TONA	"HARK ... NOLA, NIK HARI HALA" B BIRRITAN	HERRI HIZ- KERAN, BADA PERTSONAIA- REN IZENA	ZERBAIT EGITEKO ABAGUNEA
MUSIKA ESTILO DAGO	IODOA ONGI	JUDAISMOA PRAKTIKA- TZEN DUENA ZINKA	EUSKAL HERRIA RONA	OXIGENOA EUSKARAREN GATASUN AGIRIA	MUSIKA TALDEA ...-TAK, ERLOJUA	ENERGIA ALDE!, OSPA!
ADINEAN SARTU BURUTIK JOTA	HAURRA, SEINA	TONTOR, GAIN ELEKTROIA	PUNTU BATEN ALTITUDEA			



DANI BLANCO

Kike Amonarriren umorea

Paseoan

Bi espermatozoide, egotzi berriak, parajeak deskubritzen ari dira. Denbora puska bat pasa ondoren bata besteari:

- Geldi, geld! Ezin dut gehiago! Neka-neka eginda nago. Espero dut obulutik gertu ibiliko garela!
- Ez bada! –besteak–. Eta albiste txarra eman behar dizut: atzean utzi berri ditugunak amigdalak ziren!



Soluzioa

H	S	D	A	L	E	Z	P	G	F
I	B	D	A	A	A	I	K	A	B
R	O	I	B	A	O	R	A	A	O
I	N	A	O	R	A	K	A	A	A
A	T	A	A	A	A	A	A	A	A
B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
O	K	O	O	O	O	O	O	O	O
A	I	A	A	A	A	A	A	A	A
A	R	A	A	A	A	A	A	A	A
A	K	A	A	A	A	A	A	A	A
U	A	A	A	A	A	A	A	A	A
K	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
T	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
K	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
T	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
E	A	A	A	A	A	A	A	A	A
R	A	A	A	A	A	A	A	A	A

galdera-erantzun bidezko

mahai-jolasa

badakit

35 euro

ARGIAren harpidedunek

%15eko deskontua

FORMATU BERRIA

Ludi**toys** 

Eskaerak: 943 36 86 61

info@luditoys.com

www.luditoys.com

DVD



Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Lurraren orbitaren eta klimaren arteko harremana

LORRAIN LISIECKI estatubatuar ikerlariak Lurraren orbitaren eta klima aldaketaren arteko harremana topatu du, mundu osoko 57 lekutan azken 1,2 milioi urteetako hondakinak aztertu eta gero.

Jakina da Lurak eguzkiaren inguruan duen orbita 100.000 urtero aldatzen dela: batzuetan zirkularragoa da eta besteetan eliptikoagoa. Horrez gain, Lurak bere buruarekiko duen biraketa-ardatzak 41.000 urteko zikloa du. Glaziazioak 100.000 urtero gertatzen dira, eta Lurraren biraketa-ardatzaren aldaketa bat etortzen direnean, glaziazioaren iraupena aldatu egiten da.



Beste aurkikuntza bat ere egin du Lisieckik: orbita aldaketa txikiekin glaziazio bortitzenak gertatu direla, eta aldaketa handienekin glaziazio leunenak. Datu horrek Lurraren klimatologian kontrolatzen ez ditugun faktore asko dagoela adierazten du. Ikerketaren eremua oso zabala da oraindik.

Auto-pilaketa harrigarriak

DENOI GERTATU ZAIGU auto-pilaketa batean geratu garela, ez aurrera eta ez atzera, trafiko askorik edo istripurik izan gabe, eta bat-batean pilaketa desagertu dela, zer gertatu den inork ez dakiela.

Bristol-eko Unibertsitateko ikerlariak gai hori hartu dute ikerketa-lerro gisa. Aipatu dutenez, auto asko dabilenean nahikoa da, butxadura erraldoia sortzeko, gidari batek errei batetik bestera aldatzeko egindako maniobra. Esaterako, errei batean doan kamioia beste erreira pasatzen bada, errei horretatik datorren automobilak abiadura gutxitzen du, eta haren atzetik datorrenak are gehiago gutxitu behar du, eta... Ondorioz, kilometro batzuk atzetik datorrenak erabat gelditu behar izaten du.

Errepidean egindako ekintza txiki bat handituz doan elur-bolaren gisa barreiatzen da, hainbat kilometrotan. Pilaketa mota horietan, errekorra 80 kilometrokoa omen da.



Muskerren %20 desagertu daiteke mende honen amaierarako

Badirudi beroarekin muskerak eta sugandilak askoz hobeto bizi direla, baina *Science* aldizkarian argitara emandako artikulu baten arabera, narrasti horien oreka termikoa hautsi dezake klimaren gehiegizko berokuntzak.

<http://ttiki.com/13388> (Frantsesez)

Grabitatearen aurkako ilusio optikoa

Matematikako Ikerketa Aurretuen Meiji Institutuko (Japonia) Kokichi Sugihara ikerlariak irabazi du ilusio optikoen lehiaketa bat. Sugiharak asmatutako tresnan, bolatxoek aldapa batean gora egiten dute, grabitatearen aurka. Ez duzula sinesten? Ikus bada bideoa, ondoko loturan klik eginez.

<http://ttiki.com/13389> (Frantsesez)

Parisko Foucault-en pendulua hautsi egin zen apirilean

Parisko Arte eta Lanbideen Museoan dagoen Foucault-en pendulua, betiereko higidura duen pendulua alegia, hautsi egin zen joan den apirilaren 6an, baina esfera berria jarri eta berriro martxan da.

<http://ttiki.com/13390> (Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Yves Klein

JAKINAREN GAINEAN izanagatik, Madeirako lorearen emanak harritu nau. Eta liluratu, lilitu. Hemen ohituta gauden lorategi eta baratzeek gain, han loreentzat edozein bazter dute eder. Nonahi bada loretik eta bertako klima gozoari esker, aparteko neurrikoak, galantak hazten dira landareak zein loreak. Uhartea izanik, landaredia bitxia da; uhartea bera sumendi bat, uretatik sortzen den mendi koniko bat denez, ipar eta hego eguraldiz erabat berezi, flora are bitxiago. Honek bertakoak harrotzen ditu, lilitzen, eta landaredia axola handiko gaitzat dute.

Hemen etxearen itxurari ematen diogun garrantzia han etxe inguruko loreei ematen diote eta auzokoen arteko lore-lehia ikusgarria da.

Lorategi eta baratze botanikoak ugariak dira. Tartean "Monte Lorategi Tropikala". Hemen zuhaitz eta zuhaitz itxurako garo itzelen artean eskultura bilduma ederra dago. Pendiz batean Yves Klein artista suitzarrari eskainitako lauki erraldoia. Urdina, noski. Yves beraren omenez "International Klein Blue" deitzen den urdinekoa. Landareekin txoratuta, Oteizarekin eta Malevitxekin batera paisaien diseinuan gehien laguntzen didan artista baso tropikalean ziplo topa-



JAKOBA ERREKONDO

tzeak kilika, lehenaz gain zoratu ninduen. Bertako ardo gozoaren mozkorraren tankerakoa.

Mahatsondoa izan da Madeira izenari sona gehien eman dion landarea. XVI. mendean, dagoenerako, Europatik kolo-

nietara bidean, han osatzen zituzten Portugalgo, Holandako... itsasontzien sotoak, bertako ardoz betetako bukoi eta pipaz. Bide luzean ardoa ez bizitzeko azukre kanaberatik (*Saccharum officinarum*) destilatutako alkohola

eranstean zitzaien. Itsasoan berriz, etengabeko dantza eta

berealdiko beroaldiak. Alkohola, dantza eta beroa... zer nolako hiruko uztarria. Eta ustekabean izugarriko ardo ona sortu zuten. Itsasontzietan ardoa ontzea garestiegi eta orain upategi beroetan, eguzkitan ontzen dute. Mokofinen ardo goxoa eta gozozaleen ardo fina.

Olatuen, behe lainoen, lanbroen, ganduen eta terralen ttanttek ziprizzintzen dituzten mahatsondoak pendiz beldurgarrietan aitzurtutako terrazatan bizi dira. Mila metrotik gorako mendietatik itsasora jaisten diren zurubi sinesgaitzetan. Hantxe eserita, euskal kortsario, pirata eta kolonoak erraz ikusten dira.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.



ALKARTASUNA
Usurbilgo Baserriarren Kooperatiba
Ugarte Industrialdea 12 Usurbil 20170 Gipuzkoa

Elikagai ekologikoak •
Usurbilgo baserrietako produktuak •
Sagardogintzarako tresneria •
Tratamendu naturalak •
Onttoen haziak... •
Banaketa zerbitzua •

DENDAREN ORDUTEGIA
Astelehenetik-Ostiralera: 9tatik-13tara eta 16tatik-19.30tara
Larunbatetan: 9tatik-13tara

Tel/Fax.: 943 36 11 14
www.alkartasunausurbil.com • alkartasuna@usurbil.com

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Ford-ek ez zuen dena asmatu



WWW.SERIOUSWHEELS.COM

Ezkerrean, Henry Ford eta Ford T modeloa, 1908an sortu zenean haizetako-garbigailurik ez zuena. Eskuinean, egungo garbigailuak, 1903an asmatu zituztenetik aldaketa gutxi izan dituztenak.



WWW.HISPANICPRWARE.COM

NEW YORK (AEB), 1902. Mary Andersonek (1866-1953) hiri handira bidaiatu zuen lehenengoz. Alabaman jaioa, Anderson Kalifornian bizi zen eta mahastizain lanetan nahiz arrantzoko beste behar batzuetan aritzen zen. Ez zuen sekula hainbeste auto batean ikusi. Egun hartan eguraldia goibel zen New Yorken eta konturatu zen euri-lanbroak ez zela gidariei bidea ikusten uzten. Leihatila ireki eta haizetako eskuz garbitu behar zuten, oinezkoen eta gainerako gidarien segurtasunaren kaltetan.

Asmatzaile gisa ez zuen esperientziarik, eta ez zekien lehenago beste batzuk ere saiatu zirela auto-etako haizetakoak garbitzeko gailuak asmatzen, alperrik. New Yorketik itzuli zenean, Mary Andersonek garbigailua asmatu zuen diseinatzaile baten laguntzaz, eta Fresnoko enpresa bati asmakizuna ekoizteko eskatu zion. 1903an haizetako-garbigailua patentatu zuen. Auto barrutik eragiteko aukera ematen zuen palanka bat zen, kanpoko muturrean gomaz estalitako marraza zuena.

1905ean gailuaren eskubideak Kanadako enpresa handi bati saltzen saiatu zen, baina Andersonen eskaera baztertu zuten. Haien ustez, garbigailuak ez zuen balio komertzialik, eta ez zegoen bermatuta salmentek ekoizpen kostuak estaliko zituztenik.

1908ko abuztuan Ford T modeloak industria osoa eta, bereziki, automobilgintza irauli zituen. Autoek luxuzko produktu izateari utzi zioten. Salmentek izugarri egin zuten gora. Baina Henry Forden autoek oraindik ez zuten haizetakoak garbitzeko tramankulurik. Andersonek tarteka royaltyak jaso zituen, baina ez zuen dirutzarik bildu bere ideari esker, eta mahastietan lanean jarraitu zuen. 1920an iraungi zen garbigailuaren patentea eta orduantxe hasi zen haren diseinua auto guztien oinarritzko ekipamenduaren parte izaten. 1953an hil zen Anderson, 87 urte zituela, 50 urte lehenago izan zuen burutazio hark merezi zuen ordaina jaso gabe.

Arrastoak

Aragoiko Neolitoko kobazulo nagusia alferrik galdu da

CHAVESEKO KOBAZULOA (Huesca) 1975ean industen hasi ziren. Duela 6.000 urteko arrasto garrantzitsuak aurkitu zituzten han, eta Iberiar Penintsulako Neolitoko aztarnategi nagusietakoa bihurtu zen. Berriki, jabeek zorua berdindu eta 3.000 metro kubo lur atera dituzte, bertan animaliak gorde-

tzeko. Adituen esanetan, aztarnategiaren maila neolitikoa erabat hondatu dute, eta oraindik ez dakite maila paleolitikoaren zati bat salbatu ote den. 35 urtetan arkeologoek aztarnategiaren 110 metro koadro industea lortu dute, baina ez dugu sekula jakingo gainerako 3.000 metroek zer gordetzen duten.

WWW.DIARIODELALTOARAGON.ES



Albert Branchadell i Gallo

Filologian doktorea eta UAB unibertsitateko irakaslea

«Estatu independentean okerragoak izan litezke gauzak katalanarentzat»

Oso polemikoa da Albert Branchadell Kataluniako hizkuntza politikarekin. Egungo egoera juridiko eta politikoaren baitan katalanak etorkizuna duela defendatzen du. Ez da ulertzen zaila, hortaz, Espainiako Estatuko prentsarentzat erreferentziazko soziolinguista izatea.

ARITZ GALARRAGA

Argazkiak: Oriol Clavera



“Hizkuntza-bizitza zailtzen duena ez da zatiketa politiko edo administratiboa, zatiketa mentala baizik”.

Galdera samurra hasteko: zer osasun du egun katalanak?

Gutxi gorabeherako gerturatzea egingo dut. Lehenik, katalana zazpi lurralde oso ezberdinetan hitz egiten da eta lurralde bakoitzak bere egoera bizi du. Ondorioz, katalanaren ‘osasunez’ hitz egin beharko litzateke edo ‘katalanen’ osasunaz. Bigarrenik, galderak Kataluniako egoera badu helburu, erantzunak ez du zalantzarako tarterik uzten: katalanaren egoera dena delakoa izanda ere, ez da inondik inora hiltzorian den hizkuntzarena. Modu poetikoa goan nahi baduzu, hauxe esan zuen Xavier Vila soziolinguistak duela gutxi: “Katalana azkenetan dela esatea astakeria hutsa da”. Egia da, katalanaren indargune eta ahulgu-neak aztertu behar dira. Baina balantzea momentuz positiboa da. Katalanak Katalunian nahiko egoera ona du konparatzen badugu, ez bretoi edo frasierarekin, baizik eta galego edo euskararekin, baina baita estatu hizkuntza diren beste batzuekin ere: bielorrusiera, irlandera, letoniera, mazedoniera edo ukrainerarekin.

Beraz, “katalanaren heriotza” mamu bat baino ez da edo gerta liteke etorkizun ez oso urrunean?

Unescok sei faktore nagusi identifikatu ditu hizkuntzen bizitasunari dagokionean eta katalanak puntuazio altua du seietan. Begira dezagun, adibidez, belaunaldi arteko transmisioaren faktorea. Puntuaziorik baxuena 0 da (hizkuntza iraungi da) eta altuena 5 –belaunaldi guztiek hitz egiten dute hizkuntza–. Katalanari 5 erraldi bat dagokio. Katalana ondo transmititzen da belaunaldiz belaunaldi, baina ez hori bakarrik, gehikuntza txikiak ere baditu. Bata bestearen atzetik, inkesta guztietan ikus daiteke seme-alabekin katalanez hitz egiten dutenen portzentajea handiagoa dela gurasoeekin hitz egiten dutenen edo zutenena baino. Eta hori ez da preseski berehalako heriotzaren iragarpena.

Katalana akaso ez da berehala desagertuko, baina erabilera soziala ez da areagotzen. Kezkatzen zaitu horrek?

Erabilera soziala areagotu, atzerantz joan edo geldirik ote dagoen,



“Hizkuntza politika katalana estatu-nazioaren ideologiatik (“komunitate politiko bat, hizkuntza bat”) eta katalanetik harago joan behar da”.

afera labaina da, eta datu enpirikoek ez dute modu garbian ebazten uzten. Beti bezala, kasu honetan ere termino erlatiboetan hitz egin behar da. Konparaziorako terminoa bada egoera idiliko bat –iraganekoa edo etorkizunekoa–, zeinean mundu guztia komunikatzen den normalki katalanez, bada, gaur egungo erabilera soziala horizonte horretatik

“Orokorrean, uste dut hizkuntza komunaren proiektua ez datorrela bat gizarte linguistikoki heterogeneo batekin, ez eta hizkuntza politika demokratikoaren idealarekin ere”

askoz beherago dago eta oso litekeena da horrela jarraitzea hainbat belaunalditan. Konparaziorako terminoa bada historia erreala hurbila, eta bereziki garai frankista, bada, erabilera sozialak boom garrantzitsua izan du. Argi ikus dadin, nahikoa da konparatzea 1975ean hizkuntza sisteman edo administrazioan zegoen erabilera gaur egungoarekin. Baieztape

horrek ez du esan nahi katalana sartu ez den edo modu nabarmenean sartu ez den erabilera eremurik ez dagoenik. Baina balantzeak positiboa izaten jarraitzen du. Erabilera sozialaren aferak kezkatu beharko gintuzke soilik baldin eta erabilera hori hizkuntzaren iraunkortasuna ziurtatzeko beharrezkoak diren gutxienekoen azpitik balego. Eta ez da egun katalanaren kasua.

Defendatu izan duzu katalanaren benetako arriskua ez dela desagertzea, etnifikazioa baizik.

Etorkizuneko eszenatoki posiblea litzateke talde etnolinguistiko jakin baten mugetan erabiltzea katalana. Eszenatoki horretan katalan-katalanek baino ez lukete hitz egingo katalana, gainontzekoek gaztelania edo beste hizkuntzaren bat egingo lukete. Horren gainean bi gauza esan behar dira. Lehen, etnifikazioa bateragarria dela hizkuntzaren iraunkortasunarekin. Euromosaik izeneko ikerketan ikusi zen Europako hizkuntza minoritario indartsuena luxenburgera zela, luxenburgotar jatorren hizkuntza, oso etnifikatuta dagoena –oso zaila da luxenburgera hitz egiten duten etorkinak aurkitzea Luxenburgon–. Bigarren gauza da, katalanaren kasuan, etnifikazioa aukera teorikoa dela arrisku erreala baino. Aipatu ditudan transmisio



horren aldekoa denik. Bestalde, gehiengoa balitz ere, ez nuke jakingo gisa horretako eszenatoki batera iristeko mekanismoak zeintzuk liratekeen. European badira hizkuntza batzuk espazio publikoan erabiltzen diren hizkuntza bakar bilakatu direnak, baina ez dut uste Katalunia eredu horiek jarraitzeko baldintzetan dagoenik. Eta herrialde horietako askotan, hizkuntza komuneraikuntza moralki onargarriak ez diren politiketan oinarritu izan da.

Adibidez?

Poloniera Poloniako hizkuntza komuna bilakatu da alemaniar eta ukrainar gutxiengo nabarmengarriak garbituz. Ez dut uste katalanen gehiengoak gaztelania hitzunak Kataluniatik kanporatzea nahi duenik, Poloniak alemanekin egin bezala. Eta ez ditut ikusten babesa ematen Akcja Wisla moduko zerbaiti —ukrainarrak Poloniatik, beren etxeetatik, atera eta poloniar lurraldeetan barrena barreiatu edo zuzenean Sobiet Batasunera eramanez zituzten—. Orokorrean, uste dut hizkuntza komunaren proiektua ez datorrela bat gizarte linguistikoki heterogeneo batekin, ez eta hizkuntza politika demokratikoaren idealarekin ere. Zer gertatzen da Mazedonia edo Ukraina bezalako herrialdeetan? Ez badituzte albaniarrek kolpetik kanporatzen Mazedoniatik, mazedoniarrek dagoeneko ez daude mazedoniera espazio publikoan erabiltzen den hizkuntza bakar bilakatzeko baldintzetan.

Gaur egungo marko juridiko eta politikoarekin, posible al da etorkizun normala katalanarentzat?

Hizkuntzaren erregulazio konstituzionala nabarmen hobetu daitekeela ulertuta, uste dut, modu abstraktuan, katalana babes daitekeela Espainiar Estatuaren baitan. Politika konparatuak erakusten digu

posible dela hizkuntzek egonkortasuna lortzea hitzun komunitateak burujabe izan gabe. European, ondoen babestua dagoen gutxiengo linguistikoa Åland irletako suediarrena izango da, eta ez dira estatu independentea, Finlandiaren baitako eskualde autonomoa baizik. Gutxiengoan gai eztabaidagarriaz harago —katalan hitzunei ez zaie gustatzen gutxiengo direla esatea, nahiz eta hala diren—, bestelako kasuak ditugu, nederlandararena Flandrian, adibidez. Nederlandera “normala” da Flandrian, estatu independentea izan ez arren. Zure galdera balitz soziolinguistikaren ingurukoa, erantzuna konplexuagoa litzateke, baina berdin pentsatzen dut posible dela gizarte linguistikoki heterogeneoan hizkuntzen egonkortasuna lortzea. Frantsesaren kasua litzateke Quebecen. Quebecen frantsesaren “normaltasuna” bateragarria da ingeles hitzun talde nabarmen baten iraunkortasunarekin.

Kataluniaren balizko independentzia kaltegarria litzateke katalanaren osasunarentzat?

2001eko liburu batean “independentziaren hipotesia” eztabaidatu nuen. Hipotesi horren arabera independentzia politikoa beharrezko baldintza da hizkuntza normalizazioarentzat. Alde batetik, hipotesia enpirikoki faltsua dela argudiatzen nuen: esan berri dudan bezala, baditugu adibide batzuk hizkuntzaren normaltasuna Nazio Batuen Batzar Orokorreko eserleku batekin lotuta ez doala erakusten dutenak. Beste alde batetik, argudiatzen nuen hipotesia —ez independentzia bera— moralki makurra zela, komunitate askok ordaindu nahi ez duten edo sinpleki ezin duten prezioa jartzen ziolako normaltasunari. Nork azalduko die geratzen diren ehun livoniarrei

pauten ondorioz ere, katalanaren erabilerak katalan jatorren taldearen mugak gainditzen ditu, bere egin duten eta beren seme-alabekin edo espazio publikoan katalana erabiltzen duten gaztelania hitzunei esker. Atzerriko immigrazio berriarekin —izan arabiarrak, berberea edo errumaniarrak— badago egoera horrek jarrai dezakeela pentsatzeko motiborik.

Katalanak izan behar al du katalanen hizkuntza komuna?

Hasteko, ez dakit ziur zer esanahi duen “hizkuntza komuna” kontzeptuak. Badira horren gainean hitz egin duten hainbat autore, baina anbiguotasunez egin dute maiz. “Hizkuntza komuna” espazio publikoan erabiltzen den hizkuntza bakarra dela ulertzen badugu, ez dut uste katalanen gehiengoa

Babeslea: UPV/EHU

UPV/EHU

30 urte irakasten eta ikertzen,
milioi laurden profesional
euskal gizartearen zerbitzura.

www.ehu.es

artearen historialariak • interpreteak • zuzendariak • gizarte langileak • epaileak • kriminologoak • gizarte hezitzaileak • biokimikariak • zaharberritzaileak • geologoak • teknologoak • politologoak • itsasariak • grabatzaileak • medikuak • arkitektoak • ingeniariak • kazetariak • erizainak • psikologoak • diseinatzaileak • ingeniari teknikoak • kimikariak • biologoak • fiskariak • historialariak • filologoak • itzultzaileak • irakasleak • matematikariak • artistak • odontologoak • pediatriak • ekonomialariak • enpresariak • abokatuak • fiskalak • ikerlariak • pedagogoak • logopedak • eskultoreak • farmazialariak • margolariak • soziologoak • geografoak • topografoak • aparejadoreak • hizkuntzalariak • zirujauak • kardiologoak • filosofoak • antropologoak • forentseak • idazleak • publizistak...



Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

estatu livoniar independentea dela beren hizkuntzarentzako esperantza bakarra? Katalanen ehuneko 20 edo 25a bada soilik independentista, hizkuntzaren normalizazioari uko egin behar diogu? Liburua intuiziotik are gehiago urruntzeko defendatzen nuen estatu katalan independentean gauzak okerragoak izan litezkeela Katalunia autonomoan baino. Hasteko, gaur egun duena baino onarpen handiagoa eman beharko litzaioke gaztelaniari eta horrek zail lezake katalanaren normalizazioa, orain gertatzen ez den moduan: adibidez, estatu independente katalana behartuta legoke gaztelania komunikazio-hizkuntza litzatekeen eskolak eraikitzea.

Gehiegi aurreratzea ez ote den...

Ez da politika fikzioa: Mazedoniara itzuliz, albanierak herrialde horretan duen aitorpena askoz handiagoa da orain, Mazedonia sei errepublika jugoslaviarretako bat zenean baino. Inork Mazedonia independente izaitean albaniar guztiak asimilatzeke ametsa bazuen, aspaldi utzi behar izan du atzean. 2001eko liburuarekin alderatuz, orain, agian, estatu independentea autonomia erkidegoa baino okerragoa izango litzatekeela esan beharrean, esango nuke independentzia, bere horretan, ino-kuoa dela, ez lukeela katalanaren egoera funtsean aldatuko. Adibidez, Katalunia autonomoan biztanleen erdiak du gaztelania ohiko hizkuntza eta estatu katalan independentean populazioaren erdiak jarraituko luke izaten gaztelania ohiko hizkuntza.

Kezkatzen zaitu katalanaren gaztelaniartzeak?

Katalanaren gaztelaniartzea beste afera eztabaidagarria da, beste behin datu enpirikoek argitzen ez dutena. Ez dago argi, adibidez, egun gaztelaniartzea orain dela lau hamarkada baino nabarmenagoa den. Dena dela, orain gertatzen bada, berdin gertatuko litzateke estatu independentean. Politika konparatuak laguntzen gaitu beste behin. Ukrainan, adibidez, independentziak geratu ez duen prozesua da ukrainera errusiartzea.

Egun hizkuntzek bizi duten zatiketa politikoak eragin negatiborik ba al du horien etorkizunean?

Uste denaren aurka, eremu linguistiko baten zatiketa independentea da hizkuntzen osasunarekiko. Alemanaren eremu linguistikoa politikoki fragmentatua dago eta inork ez du alemanaren osasun onaz zalan-tza egiten. Berdin gertatzen da frantsesa, gaztelania eta ingelesarekin, hiru adibide argi jartzearen. Hizkuntza txikiagoak nahi badituzu, hortxe duzu nederlander. Hizkuntzen bizitza zailtzen duena ez da zatiketa politiko edo administrati-boa, zatiketa mentala baizik —edo psikologikoa, nahiago bada—. Egonaldi bat gogoratzen dut, Hego Tirolen, Italia iparraldean den eta aleman hitzunak nagusi diren pro-

**"Arabiera da Katalunian
gehien hitz egiten den
hirugarren hizkuntza.
Berrehun mila inguru
lagunek egiten dute,
baina aitorpen handiagoa
du okzitanierak, bi mila
lagunek baino hitz egiten
ez duten arren"**

bintzia austriar ohian. Trentotik zetorren trenak Salorno gurutzatzen zuenean mundu guztiak argi zuen hantxe hasten zela Alemania eta Danimarkaren mugan den Flensburgeraino iristen zen eremu linguistikoa. Gure kasuan ez da berdin gertatzen: katalanen gehiengoak ez du sinesten beren eremu linguistikoaren hegoaldeko muga Guardamar denik —Valentziar Erkidegoaren hegoaldea—, ez valentziarren are gehiengo handiagoak beren eremu linguistikoaren iparraldeko muga Salses denik —Ekialdeko Pirinioetako departamentua—. Zatiketa mental horrek ez du uzten eremu linguistikoa merkatu kultural gisa ulertzen, ez komunikazio espazio gisa, eta horrek bai eragin negatiborik dituela, nahiz eta ez izan zorigaiztoak: katalana bideragarria da eremu linguistikoa Guardamarren ez, baizik eta Alcanar edo Sèñian

bukatu arren, Tarragonako probintziako hegoaldean.

Hizkuntza politika berria behar al da Katalunian?

Orain gutxi idatzitako artikuluan iradoki dut hizkuntza politika katalanak lau erronka dituela. Lehena katalana babestea da, baina ez printzipio nazionalisten ondorio gisa ("nazio bat, hizkuntza bat"), baizik eta printzipio demokratikoei jarraituz. Katalana babestu behar da katalanek hala nahi dutelako. Bigarrena da gaztelania onartzea, baina ez soilik erretorikoki. Gobernuak lehen-dakarioordeak hala egiten du: Parla-mentuan esplikatzen gaztelania bilakatu dela "gizarte katalanaren egiturazko elementu bat". Gero hitzaldiren batean baieztatuko du katalana izan behar dela katalanen hizkuntza, "italiera Erroman den bezalaxe, frantsesa Parisen edo gaztelania Madrilan". Hirugarrena, beste hizkuntzak aintzat hartu behar dira. Arabiera da Katalunian gehien hitz egiten den hirugarren hizkuntza. Berrehun mila inguru lagunek egiten dute, baina aitorpen handiagoa du okzitanierak, bi mila lagunek baino hitz egiten ez duten arren —bai, badakit, okzitaniera da Aran haraneko hizkuntza, baina politika berria ez da gauzatu behar hizkuntza jabegoen ondorioz—. Laugarrena, ingelesaren ezagutza maila altxa behar da. Laburtuz, esango nuke hizkuntza politika katalana estatunazioaren ideologiatik ("komunitate politiko bat, hizkuntza bat") eta katalanetik harago joan behar dela.

Nola baina?

Eskolako hizkuntza politika kasu bat aipatuko dizut: sektore politiko eta sozial jakin batzuk argi lerratu dira gaztelaniako irakasgaiari hirugarren ordua derrigor gehitzearen aurka, murgiltze sistemak porrot egingo lukeen aitzakian. Sektore berberak, ordea, derrigorrezko irakasgai jakin batzuk osoki ingelesez ematearen alde agertu dira. Gaztelaniaz hiru ordu egiteak murgiltzearen porrota dakar eta matematikak ingelesez egiteak ez? Eskola sisteman, eskola eleanitza defendatuko nuke, komunikazio-hizkuntza eskusiborik gabe. ■

EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**



Informazio gehiago nahi baduzu: **ARGIA**

Industrialdea 15 • 142 P.K.

LASARTE-ORIA 20160

Telefona 943 37 15 45

posta-e: denda@argia.com

<http://www.argia.com/makilak.htdocs>

Garbiñe Petriati Behatokiko zuzendari



KONTSEILUA

PAUL BILBAOK Hizkuntz Eskubi-deen Behatokiko zuzendari izateari utzi dio. Bilbao Kontseiluko zuzendari izango da hemendik aurrera, Xabier Mendiguren Bereziartuk erretreta hartu baitu. Behatokiko zuzendari berria Garbiñe Petriati nafarra da (Arbizu, 1962). Bestalde,

Behatokiak 2009ko hizkuntz urraketei buruz jasotakoak argitara eman ditu. Gai aldetik ez dago berririk, kexa gehien jasotzen segitzen du osasun alorrak, justiziak eta herrizaingoak. 1.415 kasu jaso ditu Behatokiak horietatik 1.287 kexa eta 50 zorion. Petriati zuzendari berriak adierazi duenez, eskubide bermatzaile izan beharko luketen instituzioetan 180 graduko aldaketa behar da hizkuntza politketan”.

‘Baionan euskaraz’ webgunea

BAIONAKO Herriko Etxeak *Baiona euskaraz* izeneko webgunea jarri du abian, Lapurdiko hiriburuan euskararen inguruan sortutako albisteak

jaso eta euskara bultzatzeko. Euskaraz eta frantsesez dago webgunea eta Euskararen Erakunde Publikoaren laguntza izan du sorreran. Helbidea: www.euskara.bayonne.fr

Bizi-zientzietako I. Topaketa

UEUK maiatzaren 28rako antolatu du Bizi-zientzietako ikertzaile euskaldunen I. Topaketa. Hiru helburu ditu topaketak: ikertzaile euskaldunen lerro zientifikoak aurkeztea, ikerlari horien arteko harremanak sendotzea eta euskarazko ikerketa eta produkzioa bultzatzea. Biologia, osasuna eta aplikazio teknologiko berriak izango dira, besteak beste, topaketako gaiak.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

BAHEA

TALAIAN

Bestelako politika fiskala egingarria da

Hego Euskal Herriko herritarrak beren Ogasunekin kontuak egiteko garaian dira. Ogasunak kexu dira, azken aldiko ekonomia eta finantza krisia dela-eta, zerga-hobarien bilketa nabarmen jaitsi delako. Kutxa foral horietatik edaten duten gobernuak berriz, jada hasi dira guraizea sartzen murrizketak egiteko. Murrizketa sozialak dira, eskubide sozialen murrizketak. Beti bezala, murrizketek ahulenei eragingo die: langileak, herri sektoreak, dependentzia taldeak... Murrizketak iragarri dituzte osasunean, enplegu publikoan eta laguntza sozialetan.

Aitzitik, gobernuak dira, euren politika neoliberalarekin, zerga-hobariaren bilketa hori jaitsi izanaren arduradun. Beraiek erabaki dute aberastasun handiengan Ondarearen Gaineko Zerga ezabatzea, eta aberastasun handi horiei PFEZan abantailak aplikatu dizkiete. Beraiek dira enpresei euren etekinengatik ordaintzen duten sozietateen errenten gaineko zerga pixkanaka jaitsi diena. Beraiek dira sektore liberal eta profesionalen iruzur fiskala modu eraginkorrean eteten ez dutenak. Ustelkeria fiskala posible egiten dutenak. Eta beraiek dira, baita ere, erabakitzen dutenak ekarpen fiskalak makroproiektu antisozialetara bideratzea, aurrez eztabaidarik egin gabe eta herritarrei galdetu gabe. Adibidez, dirua dago AHTarentzat, baina ez laguntza sozialak eta osasuna hobetu eta dependentzia gutxitzeko.

Gobernuen eta euren administrazioen eskuetan dago egoera hau aldatzea politika fiskala moldatuz: zerga-bilketa handitu eta presio fiskal gehiago eginez –batez ere aberastasun handiengan, eta enpresa eta finantza erakunde handiengan– bai eta iruzur fiskala eragotziz ere. Hori da Hego Euskal Herrian aste honetan egingo den greba orokorraren aldarrikapenetako bat.

Juan Mari Arregi

Patxi Baztarrikak *Administrazioa euskaraz* agerkarian esanak: “Ustedut gure bizikidetzaren defizit larrienetakoa dela gure gizarteko mundu elebakarraren zati handi batek euskararen munduez duen ezagutza falta. Mundu horrek utzi egin behar dio euskal hiztunak existitzen ez diren ente ikusezin batzuk balira bezala hartzeari eta euskal hiztunen era guztietako bizipenei bizkarra erakusteari. Bizikidetzaren exigentzia da hori, ez euskararena”.

Dominique Aguerregarayk *Le Journal-en* esanak: “Zuberoa ez da erakutsi nahiko lukeen bezain indartsu kulturalki. Ohitura txar bat zabaldu da, dena ongi doala esatekoa, egiazki kontrakoa gertatzen ari denean. Euskara egunero ko bizitzatik desagertzen ari dela nabarmena da eta fenomeno sozial honek kultura ere hunkitzen du. Euskararen atzerakada honen bidez, denok galtzen dugu zerbait. Kontua ez da harria inori botatzeari, guztion errua baita. Konponbidea pentsatzen hasteko garaia da”.

Erresistentzia

ZAPATEROK ba ote du beste alternatibarik nazioarteko finantza merkatuen presioaren aurrean? EBko estatu indartsuenen —eta funtsean Alemania— presioen aurrean?

Patxi Lopez eta diputatu nagusiek ba al dute alternatibarik? Ez, ez dute. Gerrikoa estutu behar da eta kito. Eta arazo nagusia ez da gerrikoa estutzearena, nola estutzen den baizik. Erabat desberdina baita gerrikoa neoliberalismoaren indarrak hasetzeko moduan egitea, edo herritarren beharrak oinarritzat hartuta.

Egungo Europar Batasunaren agintzaritzan ez dago alternatibarik. Ezta Espainia edo Frantziako agintaritzan ere. Eta are gutxiago botere ahalmen urriagoak dituzten Euskal Herriko administrazio guneetan. Eta nola egongo da alternatibarik euroaren erresumako agintaritzan indar neoliberalak nagusi direnean?

Europako sozialdemokraziak berak ere aspaldi eman zuen amore bestelako alternatiben bilatze lanetan eta hola dabil. Hiruzpatalau gobernu sozialdemokrata besterik ez dira geratzen Europako Batasunean, tartean Espainia eta Grezia, eta bultzatzen dituzten neurriak eskuinaren kritika populista eta demagogoa —“txiroenak dira kaltetuenak”— jasotzerainoko moldekoak dira.

Kontua da inork gutxik dakiela hau nola buka daitekeen, noraino hondora gaitezkeen. Euroguneak aberastasunaren lilura barreiatu zuen EBko estatu guztietara, honek estatu handienekiko zekarren morrontza kontuan hartu barik. Estatuek eurogunearen menpeko zor publiko errazaren ametsa bizi izan dute. Herritarrek eta enpresak



ARGIA

bankuen kreditu errazen ameskerian zorpetu dira. Eta bi hamarkadatan aberats berrien sindromea zorabiatzeko moduan barreiatu da agintari eta herritarren artean.

Agintarien ametsak Euskal Herrian: autopistak, abiadura handiko trenak, azpiegitura erraldoiak... Nortasun zeinuen bila, kultur eta ekonomi azpiegituren lehia barreiatu da han hemenka —“hark badu, nik ere bai”— eta tabakalerak, artiumak, gugenheimak, arte garaikide zentruak, nazioarteko erakustazokak, erraustegiak eta gisakoak perretxikoen gisara sortu dira han-hemenka. Zoriontasunaren helmuga aberastasunarekin parekatu da, eta gizarteak kosk egin dio amu saihestezin horri.

Azken bi hamarkadetan herritarrek ez dute ulertu ezin dela eduki norberak duena baino gehiago eta Ulisesen tankeran abiatu dira bankuen kantuak erakarrita. Etxea bakarrik ez, etxeak izan behar dira, eta autoak, bidaiatu urruti, kontrol gabe kontsumitu, eta auzokoak baino gehiago bada are eta hobeto. Gure agintariek bezala, baina eremu pribatuan. Hori ei da progresoa, askatasuna, Itaka. Estatubatu bizitza estilo hori erraieraraino sartu da gure idiosinkrasiaren harrotasunean bizi izan den Europar, gure bizitzetan.

Burbuila eta berarekin ametsa lehertu diren arte. Ideologia eta agintaritzak gune nagusiengan alternatibarik geratzearaino. Kapitalismoak bere baitan biltzen du krisiaren alternatiba eta testuinguru horretan diruak bere burua indartu besterik ez du egiten, gobernuak zuzenezuzenean bere agindupean jartzearaino. Ez dago alternatibarik. Edo bai.

ERRESISTENTZIA da alternatiba bakarra, gutxienez orain arteko ziklo kapitalistak errepika ez daitezen nahi duten guztientzat. Jakinda gainera, erresistentzia horrek gaur gaurkoz ez duela eraikitze ahalmenik bere baitan, baina jakinda baita ere, oraingo uholde neoliberalari aurre egin barik ezinezkoa dela etorkizuneko alternatibetan amestea.

Eta erresistentzia ez da bakarrik oraingo zapaterokadari aurre egitea, nahiz eta orain hori bilakatuko den oinarritzakoa. Ez du balioko murrizketa sozialak eteteko, ezta lan erreforma gogorra galgatzeko edo zerga erreforma progresiboa bultzatzeko. Baina agian balioko du hauek guztiak baldintzeko, pittin bat bada ere. Agian balioko du etorkizunerako aliantza sendoak jorratzen jarraitzeko. Eta seguru balioko duela herritarren gehiengoaren desadostasun sakona erakusteko. Hori bera bakarrik ez da gutxi; eta sarri funtsezkoa, hauteskundeetan bezain funtsezkoa.

Euskal Herrian bada sektore anitza eta zabala erresistentziaren ideia honekin bat egiten duena. Gehiengo sindikalak iaz deitutako greba orokorraren zentzua inoiz baino hobeto ikusten da orain. Bada indarrak eta erakusteko ordua da.

PELLO ZUBIRIA

Haien atzaparretan gaudenez, bankuak nazionalizatu

XXI. mendeko krisi handia etapak errez doa, 1929koaren antza gero eta handiagoa dauka. Amerikako bankuak eta ondoren Europakoak kiebratik salbatu ondoren, orain salbatzaileak -estatuak- dira salbatu behar porrotetik. Azkenean denok galtzaile eta bankuak irabazle bakar?

BANKUEN NAZIONALIZAZIOA EZ zuen inork aipatzen aspaldi honetan, ez bada ezker muturreko talde eta militanteek. *Demodé*, komunisten zaharkeria. 2007an lehertu zenetik XXI. mendeko krisitzarra, gero eta analisi gehiago iristen da puntu horretara. Askok banku pribatuak publiko bihurtzea aldarrikatzen du arrazoi etiko edo justiziazkoengatik: denon diruekin salbatu baldin badi-ra leizean amiltzetik, denontzako bitez haien mozkinak. Baina ez dira gutxi neurri hori, bankuen nazionalizazioa, beharrezkotzat jotzen dutenak efikazia ekonomikoan, are derri-gortasun praktikoan, oinarrituta.

Le Monde Diplomatique blog interresgarria egiten du Frédéric Lordon ekonomialariak, *Pompe à Phynance* (Finantza ponpa). Parisko CNRS erakunde publikoko ikasketa buru den Lordonek 2008ko apirilean ekin zion blogari, hasieratik aitortuz Pierre Rimbert antzerkigilearen *Ubu erregea* obrari zor ziola asko.

Hainbestetan taularatua izan den Ubuk pasarte batean dio: “Beste behin ere aberastu egin behar dut, ez dut sos bakar bat lagako”. Baina gaurko Ubu modernoak ez errege bat edo estatu bat, finantza sistema dela ziur dago Lordon. “Zein da gaur gizartea, egindako lan guztia zurrupatuta, odolik gabe utzi eta erabat menderatzen duen indar des-

potikoa? Ez Estatuak, hori ziur (...) aitzitik, bankuen eta akziodunen sistema da lapurreta guzti horren emaitza eskuetan daukana”.

2008tik minbiziak jota dagoen ekonomia kapitalistari jarraipen argia egiten dio Lordonek. Orain arteko hiru sarrerak, frantses hitzuna ez denarentzako barrokogi idatzitakoetan, egia, irakurtzekoak dira: *Crise, la croisée des chemins* (Krisia, bidegurutzea), *Sauver les banques jusqu'à quand?* eta *En route vers la Grand Depression?*

“Egoera harrigarria dirudi, baina ez da -idatzi du Lordonek-. Zeren eta, finantza pribatuen krisia finantza publikoen krisi bihurtzen ikusi zen bezala, ondoren gertatu behar zuen metamorfosia, moneta krisi eta krisi politikoa barne, guzti hori 2007 amaieran aurreikusten baitzen”. Bistan dena, oker ari ziren, nahita edo nahi gabe, “txarrena gaingitu dugu” gutxienez hiru-tan esan dutenak.

Nahasmenaren erdian puntuz puntu hari logiko bat nabarmendu nahi du Lordonek. Puntuak gure kabuz laburtuta, 2007a baino lehen Europan ez zegoen zor publiko arazorik. Azken bi hamarkadetak krisiak beti finantzen arloko *shock*en ondorioz sortu dira, handik kutsatuz ekonomia erreala kredituaren mekanismoetan. Errezesio egoere-

Irudia Munduko Sindikatuen Federazioak (World Federation of Trade Unions, WFTU) erakusten du bere webgunean: maiatzaren 4an Greziako Langile Guzien Fronte Militanteke kideek Atenasko Finantz Ministerioa okupatu zuten. Bertan bilduei WFTUko idazkari nagusiorde Valentin Pachon argazkian eskubitan- mintzatu zitzaion. Mendebaldeko iritzi publikoari sinetsarazi egin zaio “etxeko lanak ondo egin ez dituen” Grezia salbatzeko mobilizatu direla azken asteotako neurri guztiak, Europako herritarrek Grezia salbatu behar dutelakoa. Baina atzean dagoen egia da bankuei bigarren salbamendua oparitu zaiela: lehen fasean zorretan zeuden beste bankuek sortutako arazoetan ito ez zitezen, oraingoan Estatuak bankuei zor dizkienak kobratu ahal izateko. Greziaren zor publikoaren %43 bankuek utzia da, %22 mutualitateen funtsek, %15 pentsio funtsek...

tan defizit publikoak handiagotzea derrigorrezkoa da. Estatuak defizita arindu beharrak dakar zergak igo eta zerbitzu publikoak gutxitu beharra.

Puntu horretan gaude, hain zuzen. Eskubiak eskatzen du edozer egitea merkatuak lasaitzeko -Estatuak zor publiko gehiago saldu ahal izan dezan, aurreko zorren konpromisoak betetzeko-. Ezkerrak aldarrikatzen du herritarrek ez sobera kaltetzea. Tirabira horretan gailbitza orain. Baina datu latz hau erantsita: finantzen arloak urteotan ezagutu duen araugabetzearen ondorioz, inork, ez politikoei eta ez beste agintariei, ez du aurkitzen tresnarik egunetik egunera sekulako aldaketak nozitzen dituen bilakaerari aurre egiteko.

Matxinada edo manipulazioa

Europar Batasunak onartu berri du egonkortze plan bat 750.000 milioi eurokoa, bere baitako edozein estatutarako larralditik ateratzeko. Horietatik 60.000 direla EBk dirutan jar ditzakeenak, 250.000 Nazioarteko Diru Funttsak, eta gainerako 440.000ak Europako estatuen bermeei lotuta daudela. Zorretan estu dabilztan estatuak berak dira berme!

Jokaldiarekin Grezia salbatu nahi da hondoa jotzetik, esaten da. Baina kobratuko dutenak, osterara ere, bankuak, inbertsio funtsak eta gisa



bereko beste hartzekodunak izanen dira. Haien esku da zor publikoa.

Greziak ordainketak etengo bali-tu edozein enpresak egiten duen gisan, hartzekodun guztiekin nego-ziatu beharko luke, zorraren parte bat kitatzeko posibilitatea baztertu gabe. Baina oraingoa bezalako sal-bamendu operazio batekin bankuak eta inbertsio funtsak izango dira onuradunak; aldiz, estatuaren zerbitzuak gutxituko zaizkien herritarrek nozituko kalteak. Hauek ere ban-kuak bezain hartzekodunak izan arren. Horra finantza ponpa lanean.

Zer dela eta ezin ditu Greziak ordainketak eten? New York hiriak egin zuen, Kalifornia antzeko egoe-ra batean bizi da, izan dira aurrekari gehiago. Zorrak berrantolatzea edo

ordainketak eteteak ez du esan nahi hartzekodunek diru guztia galduko dutenik baizik eta ordainketak atze-ratuko direla... tartean zorren zati bat kitatutzat emanez, ingelesez *haircut* (ile mozketak) esaten zaiona.

Kontua da azken hamar urteotan zor publikoaren osaketa erabat aldatu dela, finantzen merkatuan urtu direlako zorrok, produktu batetik bestera pasatuz. Erakunde batek aurrean hartzekodun gutxi eta ezagunak dauzkanean zorra berriro negoziatu eta ordainketak atzeratzeko modua badauka, baina nola egin merkatuen liberalizazioa-rekin nork-noren-zer daukan ez dakienean?

Ororen buru, banku, inbertsio funts eta bestelako finantza egitu-

ren eskuetan daude gaur estatuak. “Herritarrok bankuen atzaparretan harrapatuta gaude?”, galdetzen du Lordonek, berak erantzuteko: “Bai”. Orduan, gizartearen bizimo-dua, biziraupena bera, hain neurri handian mugatzen duen tresna ezin da esku pribatueta egon. Naziona-lizatu beharra dago.

Lordonen hitzetan, Europak martxan jarri duen oraingo salba-mendu plana ondo aterako balitz, eta ez da segurua, bankuek herritar-ren gehiengoaren sakrifizioen biz-ka urrats berria emana izango luke-te herritarren ondasunak beren altxorretara eramateko. Horregatik, finantza erakundeek indar handie-gia hartu dutelako, alternatiba dago-enekoz ezin da izan haiei arau berriak ezartzea, zerga berriak. Tobin tasa famatua bera ere hutsa-ren hurrengoa litzateke finantzek herritarren eta erakundeen bizitzan hartu duten garrantziari egokitzeko.

Bitartean, aginte publikoek banka jabe pribatuak eskuetatik ken-tzea aurreikusita ez dagoenez, ondorengo hilabeteetako bi eszena-toki posible aurreikusi ditu Frédéric Lordonek. Bata, jendearen oldar-tzea, matxinada. Esan liteke Gre-zian herritar asko horretan dabilzala: besterik da zer lortu lezaketen.


Bigarren aukera da finantzek estatuen bihotzei zuzenean eraso-tzea: jendea mobilizatzeko partez, merkatua astindu, finantza krisia larriagotu eta gobernua behartu are neurri gogorragoak hartzera, herritarren bizkarretik.

Zer dio jendeak? Lasai dirudi, menturaz krisiak ez dio nahiko min egin... Laster igarriko dio. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Anuntxi Arana

Itzuli edo ez itzuli

Euskaraz egiten dena erdarara itzuli behar al da? Ezetz diote batzuek, arrazoi sendoak emanez. Juan Ignacio Pérez Iglesiasen ustez, erdaldunek jakin behar dute zer galtzen duten euskaraz ez jakinik. Antton Lukuk bere azken liburuaz zioen euskaldunentzat idatzia zuela eta ez ziela baitezpada besteei ere helarazi nahi. Eta Agustín Zamorak gaineratu zuen aski lan badugula euskaraz ekoizteko, erdarara itzultzen denbora pasatzeko gero. Bai, kartsuagoak bagina eta katalanek bezala egingo bagenu...

Baina ez gara eta ez dugu. *Mezularia* irratia saioa egiten zuenean, Maite Artola arrangura zen kazetariak mesedezka ibili behar zutelako prentsaurrekoetan euskal politikariak solas apur batzuk euskaraz bota zitzaizkien irratian pasatzeko. Fermin Muguruza ere haserre mintzatu zen, Mikel Laboa zendu ondoan ETB2n erdaraz entzun zituela-eta euskaldunen hizpideak, eta Lluís Llach-enak, aldiz, katalanez azpiztituluekin; haren iritziz, euskaldunok ETB2an euskaraz azaltzen ez direno jai dugu, alferrikakoak izango dira euskararen aldeko kanpaina guztiak –garai hartan kanpainak egiten baitziren.

Nago itzulpenak euskararen erabilera erraz lezakeela, eta ez dut ahanztekoa zer frustrazio izan zen Iparraldeko euskara ederrenetarikoz mintzo den lagun batek bere hitzaldia frantsesez eman zuenean, entzule gutxi batzuek ez zutelako euskaraz ulertzen: erakunde antolatzaileak ez omen zuen itzultzaile ordaintzeko dirurik. Baina ez da sos kontua soilik. Gertatu izan da Angelun hizkuntzalari frantses bati itzultzaile bat ekarri izana, euskaldunentzat; hau da, inorentzat, hemen denek baitakite frantsesez eta denek bertsiio originala hobesten. Sentsibiltatea ere behar da premiak non diren ikusteko, dirua ezartzen baita, gutxi bada gutxi, baina nork probesteko?



GAIZKA IROZ

Esperientziak erakusten du biltzar eta mintzaldietan itzulpen sistematikoa eskaintzeak euskaraz egiteko parada ematen duela –edo erdaraz egiteko estakurua kentzen– eta horretarako laguntza ez dela alferrikakoa. Elkarte txiroen bilkuretan musu-truk aritzen baitira itzultzaileak maiz; leher eginda eta irriño xalo batez onartzen dituzte bihotzez bihurtzen zaizkien eskerrak eta kafesne beroa.

Holako kezkarik ez ahaltsuek. Oraindik EAJko buru zela, Josu Jon Imazek “transbertsalitatea” zer garrantzitsua den idatzi zuen erdaraz, *El Correo*. Egun batzuk lehenago Hazparnen izana zen bisitan eta han, *Herria* astekarian irakurri genuenez, hitz hauek erabili zituen: “Euskaraz bizi behar dugu, euskaraz maitatu eta euskaraz egin eguneroko eginbideetan. Euskaldunek elgar entzutearen

beharra badugu, garen populu bat bezala onartuak izateko”. Elgar irakurtzearen beharrik ez, itxura. Beste buru ohi batek ere erdaraz kontatu zituen bere memoriak, kazetaria erdalduna zelakoan. Ez bide zuen euskal profesional onik topatu zazpi probintzietan.

Lehengo neguan Juan Jose Ibarretxek, bere plana Madrilan aurkeztu zueneko 5. urteurrenean, artikulu bat idatzi zuen

Deian, zeharo abertzale eta zeharo erdaraz; euskaraz eginda ere biharamunean erdarara itzulua ageriko zela jakin arren.

Udaberria argitzekotan zegoen Imanol Murua Uriak *Loiolako begiak* liburua plazaratu zuenean. Scoop bat euskaraz idatzia, hori da bikaina, edukiaren balioaz gainera. Bere lana aurkeztera Baionara etorri zenean, Jean Pierre Massias irakasleak gomitaturik, pozik entzun genuen euskaldunek, eta frantsimuntek ere bai, Antton Harinordoki itzultzaileari esker. Horrela eginez gero beti, denok ginateke irabazle eta inor ez galtzaile, eta ez gurutze hain estuturik egon beharko bestelako garaipenen menturan. ■

« Gertatu izan da Angelun hizkuntzalari frantses bati itzultzaile bat ekarri izana, euskaldunentzat;

hau da, inorentzat, hemen denek baitakite frantsesez eta denek bertsiio originala hobesten.


Sentsibiltatea ere behar da premiak non diren

ikusteko, dirua ezartzen baita, gutxi bada

gutxi, baina nork probesteko? »

ASTE HONETAKO

zozketa



Laia Erreategia

Afaria 2 lagunentzat

Arkolla auzoa, 33
Hondarribia GIPUZKOA

www.laiaerreategia.com

1



Esait

2 maillots (L)
opari

www.esait.org

2



Txuri-Urdin

2 harpidedunentzat launa
sarrera opari

Anoetako pasealekua, 24
Donostia GIPUZKOA

www.eltxuri.com

3



UEK U10

5 CD opari

Soraluze GIPUZKOA

www.hotsak.com

4



Des-kontrol, Trikizio, Une eta Ost

4 CD sorta opari

Baga Biga

www.baga-biga.com

5

AZKEN IRABAZLEAK (2230. Argia)

ELLAURI HOTELA

• Igor Jimenez Honrado (Elorrio)

CHILLIDA LEKU

• Maria Jose Etxaide Ibarguren (Bergara)
• Jabier Alzorritz Lardies (Bilbo)
• Garazi Cristobal Azkarate (Urruña)

PINTXATU

• Alberto Los Arcos Fernandez (Aras)
• Errioguarda Enea Jatetxea (Hernani)
• Imanol Arluziaga Esnal (Donostia)

ZIENTZAREN KUTXAGUNEA

• Josu Belar Unamuno (Arrasate)
• Migel Anjel Mintegi Larraza (Beasain)
• Alaitz Katarain Azaldegi (Idiazabal)
• Jose Mari Ogando Rodriguez (Lekeitio)

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

• Sara Beraza Jorajuria (Donostia)
• Saioa Arando Lasagabaster (Aretxabaleta)
• Mikel Garmendia Aizpuru (Bilbo)
• Edurne Arrizabalaga Basterretxea (Ondarroa)

NOBEDADEA

Kosmoiet

Izarretako misioa

Hemen duzu planeten misterioak
argitzeko mahai jolas berria.
Bihur zaitez espazio-ontzi azkar
baten pilotu eta konkista itzazu
Lurra eta Eguzki sistemako beste planetak.



+8



2-4



40-60 min.

29 euro

ARGIaren harpidedunek
%15eko deskontua

Luditoys

Eskaerak: 943 36 86 61
info@luditoys.com
www.luditoys.com